



Hegonaldiko apunteak

Brasil, Ekuador eta Bolivian hamar eguneko lan-bidaian bilduak

JON SARASUA

Aurtengo ekaineko idazki honek badu kronikatik, analisitik, egunerokotik, badu erreportaje kutsurik. Baina irakurleari argitu behar zaion lehen gauza zera da, aurrean duen testua bere hastapenean ez zela idatzi berak irakurtzeko. Argitaratzeak zinez merezi zuelakoan, lana gure orriotan plazaratzea eskatu genion Jon Sarasuari. Pentsamendua, informazioa eta dialektika jorratzen ditu LARRUNEK. Ezaugarri horiek guztiak eta gaurkotasun zorrotza biltzen dute Hego Amerikako borborretik ateratako zipriztin-lerro hauek. Bere horretan argitaratzeko ausardiagatik, gure esker ona adierazi nahi diogu egileari.

■ Jon Sarasua*

Marrazkiak: Asisko Urmeneta

Laneko irtenaldian ezer idazterik ez zitzaidan burutik pasa. Baina Sao Paulon opari berezi bat izan nuen, eta idaztea eskatu zidan zerbaitek, lagun gertukoekin elkarbanatzeko. Horrek, hurrengo egunetan ere bizitakoa biltzeko jarrera jarri zidan, eta bueltako hegazkinetan ez nuen besterik egin.

Uste dut gehitxo dela hamar egunetarako, gutxi idaztekoa izan naiz, eta idazterakoan letra gutxi-koa. Hauek ez dira lau urte lehenago Brasilen denbora askoan bildutako tantak bezain destilatuak. Denbora tarte gutxian osatuak dira, zakarra-go. Bereziki Garabideko lanerako gogoetak dira Ekuador eta Boliviako luzeenak. Baina tartean denetik sartu da, hamar egunetan bizitako intentsitatearen erakusgarri. Ale batzuk baldin badaude, lastoa berez eroriko da.

Goiko bi parrafo hauek osatzen dute orriok dozena bat laguni bidaltzeko egindako sarrera. Eraikuntza txikien lubakian lehiatzeko hautua egin dugu urteotan, eta 'publikoari' begira egindako oro saihesteko joera izan dut aro honetan. Gorputzak ezezkoa sentitu du orriok argitaratzeko ustekabeko proposamenaren aurrean, baina sal-

buespenak eginarazten badakite ARGIAko lagunek. Eraikuntza txikia izan berau ere.

Arazoa da lagun gutxi batzuentzat idatzita dagoela, testuingurua ulertuzat emanez. Ez dakit irakurle-go zabalari nola aurkeztu, berarengan pentsatuz idatzi ez diren orriok. Ez da eguneroko bat, kronika batean kontatzeko moduko gauza asko ez dira agertzen (hamaikatik bi hegazkin galduta ibilitako gorabeherak, adibidez). Adiskide batzuentzat egindako mini-gogoetak dira. Horretarako aitzakia ematen zuten gertaera koxkorrak biltzeari eman nion irtenaldiko une batean. Laneko adiskideengan pentsatuak dira, haiek ulertzeko moduko erregistroan, zerbaitek haiekin konpartitza merezi zuela sumatzean zuzenean idatzita.

Testua ukitzen ez hasteagatik, oin-ohar gutxi batzuk erantsi ditut, irakurleari testuingurua apur bat ezagutarazteko. Urte batzuk badituen lan-ildo baten harian Brasilen eskala laburra egin ondoren, ildo berri baten hasieran Ekuador eta Boliviara egindako irtenaldian kokatzen dira orriok. Aurtengo maiatzeko hamar egunen sarean bildutako apunteak dira, distantziarik gabeko beroan idatzitako oldozpen zatiak.

* Jon Sarasua Mondragon Unibertsitateko irakaslea da Huheziko fakultatean. Kooperatibismoari buruzko Lanki Ikertegiko zuzendaria ere bada eta Garabideko sortzaileetakoa.



I. Hamar ordu Sao Paulon

Ekonomia solidarioa

Horrela izendatzen hasi dira hamarkada honetan. Planeta gorri honen baitan gertatzen ari den humanizazio prozesurik aipagarrienetakoa da beharbada.

Mundu osoko fenomeno da, barreiatua. Brasil da adibide aberatsenetako bat. 22.000 ekimen edo enpresa inguru biltzen ditu Brasilgo ekonomia solidarioaren mugimenduak.

Kapitalismoaren gaitz batzuen alternatiba gisa bete dezakeen edo ez dezakeen tokiaz eztabaida teoriko interesgarria dago. Jadanik eztabaidan ez dagoena da badela ekonomia solidarioa deitzen den errealitate bat, eta errealitate zabala dela. Adibidez, euskalgintzaren inguruko erakunde eta enpresa sozialen sarea litzateke tanta nimiño bat itsaso honetan.

Brasilen errealitate zabal horretako eragileentzat esperientzia garrantzitsua da Arrasateko kooperatibagintza. Badira konpartitu ditzakegun ideia praktikoak, eta truke horren inguruan sistema txiki bat sortzen

saiatu gara azken hamarkada honetan. Jaso egiten da beti gehiago.

Masajea

Laneko bileraren ondoren Ekonomia Solidarioaren Inkubadorako langile baten etxean tertulia luzea egin dugu dozena bat lagunen artean, beste behin. Brasilek masaje intelektuala ematen dit. Masajeak badu minetik eta badu giharrak tonuan jartzetik. Baina, batez ere, gozamen txiki bat da.

Hala gertatzen zait brasildarrek. Ideologikoki bizi-bizirik dago herrialdezarra. Edo herrialdeko geruza ideologizatua, baina geruza hori ere ia milioitan kontatzen da, ehunka mila militante gaztetan, ehunka erakunde, gizarte mugimendu eta ekimenean. Brasil ez da Latinoamerika ohikoa, haren edertasun batzuekin beste abiadura bat, beste historia bat, beste gaitasun bat du. Bere handian, bere modernoan, badu alde bat gurekiko: ezkerria deitu izan dioguna sortu zuten zauriak oraindik odoletan daudela,



PHOTO © TXOMIN TXUEKA

“Sao Paulo berriro. Zazpigarren aldiz-edo bertaratu naiz azken lau urteotan, eta hiri erraldoia nire bihotzaren ertzean toki bat egiten hasia da”.

saihesteko nabarmenegi. Aldatu beharraren handia ez dela eztabaidagai, bistakoegia baita miseria, hegazkin eta helikoptero pribatu kopururik handiena duen herrialdean. Eta azken bi mendetako Europan gertatu zen bezala, errealitate gordinak kontraste handiegia egiten du intuizio etikoekin –erro kristauen berdintasun-deiarekin bereziki, Brasilen intrigatuta nauka erlijio-senaren sakonak– eta horrek sortzen duen leherketa moralak askotariko bideak hartzen ditu. Brasilgo mugimendu humanizatzailea askotarikoa da, koloretua, bizia.

Hala dira egungo proposamen global batzuetan erreferente. Munduko mugimendu alter-globalizatzailean hamarkada honetan ez dira sindikatuak gidari nagusi, nekazari mugimendu erraldoiak baizik, eta hauek ari dira ikuspegi integralenekin proposamenak lantzen eta praktikatzten. Horregatik ere interesgarria da Brasil. Baina beste kontu bategatik ere bai. Euskal Herrian lainerik ideologiko ezkertiarren erresaka

azkartxo pasa zen. Hainbat gauza ukatzeko –tradizio espiritual osoa, mendetako burubide eragileak, edo hainbat jarraidura-sen– presa izan zuen ezker adolozente hartatik, progresia honetara pasa gara: kapitalismoaren arrazoieta etorri izana ezker nerabe haren subproduktuekin apaintzen duen jarrera horretara. Hirurogeietan kolpe batean etorri zen gurera modernitatea, eta beste kolpe batean aldegin zuen gero eraldaketa-sukarrak. Gertatu denaz ohartzeko ere gaitasunik gabe gaude, eta diskurtso progrea da nagusi gure zutabegileetan, tertulianoetan eta albistegietako komentarioetan. Progrea eta pobrea hoskideak dira, kontuz ahoskatzerakoan. Izan ere gaur egun ertzetan interesgarria den ia planteamendu oro progresisten kontrako norabidean doa.

Brasilek aukera ematen du ezkerraren zuloez hobeto oldozteko, bere falaziak bizirik baitaude, ezkerraren arrazoi lodiak ere bizirik dauden moduan. Elkarrizketetan agertzen da iraultzaren balizko beha-

rra, eta estatu planifikazioaren irtenbidea, eta autore marxisten analisisa, eta baldintza objetiboen kontua, eta humanizazio bide apalagoei (pobreziatik sortutako autoeraketari, adibidez) seinalatzen zaizkion kontraizanak... Debate horretan egoteak guri pasa zai-gun erauntsiaren liseriketa egiteko aukera ematen du.

Eztabaida horietan, entzutea ederra da. Burua irekitzen du, eta bihotza laztantzen. Ni mintzatzea ez da beti hain ederra izaten haientzat. Ez dugu lagunik galtzen, eta tira.

Gakartzana

Hamarkada honetan Brasileraren tarteak gakartzana ez da masaje ideologikoa. Beste zerbaitek gaitu bultzatu hizkuntza berria ikastera. Lurrik Gabekoen Mugimendurekin azken zortzi urtetan josi dugun harremanak eta beren eskualde-proiektu pilotu zehatz batek.

Egile-sena sustraitua da 'bizkaitarren', horretaz Kixote ere ohartua zen. Jarioan eta analisisian nonahi gaituzte gairak. Baina harreman iraunkorrek egile-sena dagoen lekuan sortzen zaizkigu. Eta Lurrik Gabekoen Mugimendua historiaren opari bat da, milioi bat pertsona mugitzen dituen esperientzia.

Munduko gizarte-mugimendu handienetakoa denak, hala ere, Sao Pauloko kaleetan ibilki anekdotak marginal bat dirudi. Erraldoian, handia txiki.

Sampa de novo

Sao Paulo berriro. Zazpigarren aldiz-edo bertaratu naiz azken lau urteotan, eta hiri erraldoia nire bihotzaren ertzean toki bat egiten hasia da. Goizean goiz omnibusean saopauloratu naizenean, kutsadurazko behelainopean esnatzen ari zen piztia. Berehala, eguzkipean giza-uholde zorabiatzaile bihurtu da. Libre dut eguna. Eta hiriaren usain kontaezinen korrontean murgilduta, berehala konturatu naiz egun osoa horretan pasako dudala, kalea bizitzen, eta ez dudala ez *lanhousetako* ordenagailurik ez paperik ikutuko, badaezpada pardelean lana ekarri badut ere.

Alguma coisa aconteceu no meu coração. Caetano Velosok hiri piztizar honi, lehen urtetan sortu zion zartada urbearenganako maitasun bihurtuta gero egindako kantua da. Txunditu egin ninduen doinuak duela urte batzuk, Curitiban kooperatibismoari buruzko jardunaldi batzuen bukaeran gurekin hizlari izan genuen abokatu itsu batek gitarraz kantatu zue-nean. Orain, nik sentitzen dut alguma coisa.

Konfiantza osatuta gero
lurrean eseri naiz, eta zahar
bategatik azkazelak mozteko
eskatu duela eta Bernardok niri
eskaini dit aukera. Azkazelak
moztekoa luzatu dit. Atzapar
beltzazkoak aurreratu dizkit agureak,
ke usaina darie azkazalei mozketaren
kolpe bakoitzean

Hiru

Omnibusetik jaitsi eta norabidea erakutsi didan mutilarekin egin dut kilometro bat. Guarulhosekoa da eta han zenbat bizi diren galdetu diot. Berehala ohartu naiz ez dakiela, jakina, brasildar gehienek ez dituzte jakiten beren hiriarri buruzko datu horiek, gutxi gorabehera ere. Nahiko hiri txikia dela esan dit, Sao Paulo dela handia dozena bat milioi inguruekin, Guarulhosek hiru milioi izango dituela. Esateagatik esan du.

Guk gure herriaren izenean –gure ingurueneko hiru milioiren izenean– ematen dugu gure amets-izerdiaren erdia. Mutilak bere inguruko hiru milioiak esateagatik bota ditu, izan litezke hiru, izan litezke bat eta erdi, izan litezke lau. Lotarako hiria omen da, lana Sao Paulon egiten omen dute gehienek, han ez dago lanik.

Opariaren hasiera

Goizeko bederatziak izango ziren, giza marean murgiltzen ari nintzela, Sao Paulo erdiguneko metro sarrera baten inguruan urrutira bost gazte inguru somatu ditudanean zakuz jantzita eta oinutsik. Iruditu egin zait, egia esan, ordurako ni beste norabide batean bainindoan eta jende-uholdean jantzi zatiak eta oinutsen bat besterik ez baitut ikusi. Norabidea aldatu dut eta korrika apur bat egin dut metro-eskaileran sar zitezen baino lehen beraiekin gurutzatzeko.

Zorionez ez dira metrora sartu (gero jakingo nuen zergatik), eta nire parean pasa dira. Bost lagun, hiru neska eta bi mutil, hogeita hamar urtetik beherakoak.

Suak hartu omen zuen behin
soihana. Animalia guztiek ziztu
bizian aldegin zuten, dena
utzita. Beija-florrak ere bai, baina
errekatik mokoan ura hartu eta suari
tanta bat botatzera itzuli omen zen.
Ondoren berriz, eta gero berriz. Esan
zioten alferrik ari zela, ez zuela sutea
horrela itzaliko. Erantzun zien
bazekiela, baina hori zela berak egin
ahal zuen apurra

Mutilek kasko gaina soildua daukate garai bateko frantziskotarren moduan. Zaku marroi arinez jantzita daude, soka moduko bat gerrian, eta guztiak oinutsik. Bi neska beltzaranak dira, eta hirugarrena intelektual itxurako betaurrekodun ilemotza. Bulkada izan dut, eta galdera luzatu diot haietako bati.

Iribarrez begiratu dit. Besteak ere inguruan gelditu dira. Brasilgo mugimendu sozialetan ezagutu izan dugun jende mota horren antzekoak iruditu zaizkit adinean, aurpegieta, tratu-motan. Arraza gazte ameslari horretako jendea. Asisko Frantziskoren ildo-ko anaidia direla esan dit, gizonetzko eta emakumezkoak taldean batera. Asiskoaren hautua egin dute, pobre bizitzeko eta kale gorrian bizi den jendeari harrera egiteko.

Elkarriketa labur bat izan dut beraiekin, eta antza denez nire galderek edo nire begiek konfiantza mailaren bat adierazten dute, edo jakinmina edo txundimena, ez dakit, ni haur bat bezala sentitzen naiz galdezka. Bapatean bota dit oraintxe doazela errepidepean bizi direnei, 'irmaos da rua' batzuei, ilea eta azkazalak moztera, eta ea nahi dudana beraiekin joan.

Aitor dezadan, zalantza egin dut segundu batez.

Bost oinuts

Bidean, espero ez nuen errealitate bat aurkituz noa, frantziskotar ez diren frantziskotar berri hauena.

Maria Elena dut lagun hasierako pauso hauetan, neska betaurrekodun ilemotza. Duela hamalau urte sortu ziren, eta badira ehunka batzuk, gehienak gazteak, hogeitik hogeita hamar urtera bitartekoak. Bizitza kotsakratua egitea erabaki dute (pobre, sexu loturarik gabe eta taldean bizitzeko hautua), eta beren lan-ildoan Brasilgo baztertueta baztertuenei maitasuna eramatea da. Kanean botata dauden gaixo, elbarritu, alkoholiko eta drogazaleen bizitzen alboan egotea. Otoitza, eta pobrezia erradikala.

Bada zerbait gehiago hemen. Bada zerbait Asisko herritarren aurrean biluztu omen zen Franchesco txiki zoro harengandikoa. Halako alaitasun bitxi bat.

Jantziengatik galdetu diot Maria Elenari. Mahaiak garbitzeko erabiltzen den oihalarekin eginak daudela dio, baina egia esan itxura eroso dute, eta politikak ere badirela esango nuke. Zoruan denetik duen hiri honetan oinutsik ibiltzeak ez dirudi arazorik sortzen dienik. Ez diet horretaz galdetu. Hemen gabiltza kotxe, semaforo, koska eta zizinkeria arteko hiritzar ero honetan, bost zakudun hankautsik eta bakerodun bat deportibo beltzekin. Semaforoak oinezkoentzat gorri daudenean ere batzutan egiten dute aurrera. Poztu nau horrek. Hiritarrek dira. Beren arteko umore eta xalotasunak erakartzen nau.

Doan

Periferiako *homeless*-ak urruti xamar daude, eta asko ibiltzeko prest nagoen galdetu didate. Eurak oinez ibiltzen omen dira ahal dela. Dirurik ez dute metroz edo omnibusez ibiltzeko. Uko egin diote ondasunak izateari, txanpon bakar bat ere gabe dabilta. Bizilekuari dagokionean ere, hiritar batzuk utzitakoetan bizi dira. Autobusetarako ez daukate, eta behar dutenean, autobus askotan dohainik uzten diete joaten. Uzten ez badiete, ez doaz. Jaten ere musutruk ematen diete inguruko begetariano batean. Ematen dietenetik bizitzea dute hautu, erradikalki ezer ere ez edukitzea, ez atxikitzea. Dena doan eman; eta behar dutena doan jaso.

Munduko tradizio izpiritual handi guztietan izan dira hautu erradikal hori egin duten adarrak. Eliza katolikoaren kasuan, bere historian interesgarriak dira hautu muturrekoon inguruan sortu izan diren dinamika ziklikoak: koherentzia maila harrigarriko hasierak, ereduari eusteko erakundetze prozesuak, lasaitze aroak eta degradazio uneak, ziklo erradikal berrien

hasiera erakunde barrutik edo beste talde bat sortuz. Jakingarria da erakundetze zikloen irakaspena. Begiratu eruditoa egin dut, baina jakingarria denari atxikiz bizigarria denaren aurreko inozentzia galtzen da. Bizigarria dena unean unekoa da, eta edozeren benetakotasunak diakronia birrintzen du.

Biaduktopeko edertegia


Iritsi gara milaka kotxe dabiltzan biadukto baten azpira. Ilun, ketsu eta zikin dago dena, eta hor daude ertzetan espaloiko bizilagunak, batzuk mantapean etzanda, besteak eserita. Nire lagun berriak ilea, bizarrak eta azkazalak doan mozteko aukera eskaintzera datoz.

Natural hasi da sortzen elkarrizketen sarea, hau honekin, hura harekin. Tarteko egin naute, lagun berriek eta bai *homeless* bat edo bestek ere. Beraien taldeko postulante bat ote naizen pentsatu dute, antza denez. Agur beroa egin dit batek. Konfiantza osatuta gero lurrean eseri naiz, eta zahar batek azkazalak mozteko eskatu duela-eta Bernardok niri eskaini dit aukera. Azkazalak moztekoa luzatu dit. Atzapar beltzazkoak aurreratu dizkit agurreak, ke usaina darie azkazalei mozketaren kolpe bakoitzean. Une horretan ez naiz tokiz kanpo sentitu, eta hala ez sentitzeko ez zait arrazoirik okurritzen, ez bada nire lagun berrien xalotasun deskribaezina. Poliki moztu dizkiot azkazalak, berrikerian ari garen bitartean, hortz gutxiko portuges-hizkera ulertzea zailago egiten zait baina. Gustora dagoela dirudi aitona, eta aspaldiko partez azkazal batzuk moztu ditut nik, nireekin bestela egiten baitut.

Zapatilak lotsagai

Gugandik metro batzutara, etxegabeko bat bigarren eskuko zapata deportibo batzuk saldu nahian ari da lurrean jarrita. Horietako batzuk kolaz konpontzen. Niri begia joan zait, juxtu bidaiara soineko zapatekin soilik etorri bainaiz, bertan beste pare bat inguratuko nuela eta. Ez naiz bada ni gauzak erosteko zalea, baina oraingoan hara, gustora erosiko nizkioke horri bigarren eskuko zapatila batzuk.

Eta nire irudia, ustez gizarte konsumistaren barruan gutxi-eroslearena, ispiluan ikusi dut hauen aurrean. Alegia, etxegabeei azkazalak mozten eta zapatiletan pentsatzen hasi naiz une batez. Bost hauek hortik oso urrun daude. Urrun, aske, beste galaxia baten. Gau-



zekiko atxikimendu oro askatzen hasiak. Lotsatu egin naiz. Bidaiarako ondo etorriko zaizkidan arren, eta bigarren eskukoak diren arren, eta saltzailea periferiako aitona erori bat izan arren, ez ditut zapatilak erosi, ez dut dirua aterako bost hankautsen gonbidapenaren ordu preziatu hauetan.

Roberto

Beste batzuei ilea eta bizarra mozten ari dira hiru neska eta bi mutilak, haiekin txolartean. Niri Roberto izeneko berrogeita hamar urteko gizona jarri zait parean une batez. Hamar urtetik guraso gabe geratu zenetik espaloian bizi omen da. Berrogei urte, kanpoan edo tarte laburretan albergetan lo eginez. Arrakasta handirik ez omen du izan bizitzan, baina Jainkoak bizitzen utzi diola esaten du, eta harrotasun puntu batekin adierazi dit denekin ondo konpontzen dela, ez duela liskarrik, eta horixe, irauten duela, bizi dela.

Ea ni hauen seminarista bat naizen. Ezetz, eta ez naiz nire historian sartu. Umorea du tipoak, Jacinta izeneko erlijiosa liluragarri horrek bizarlaban luzea atara du, eta gillotinan ez duela hil nahi bota dio. Handik Maria Antonieta aipatzera pasa da, croissantengatik moztu omen ziotela burua Maria Antonietari. Croissantengatik? Eta hor non ematen didan historiako lezioa Maria Antonietaren ibilbideari buruz.

Bidaiarako ondo etorriko
zaizkidan arren, eta
bigarren eskukoak
diren arren, eta saltzailea periferiako
aitona erori bat izan arren, ez ditut
zapatilak erosiko, ez dut dirua aterako
bost hankautsen gonbidapenaren
ordu preziatu hauetan

Bere azala nirea baino zuriagoa dela, melanina gutxiago duela esan dit gero, eta egia dela ohartu naiz, ni baino zuriagoa da. Gero hasi da kontu bat kontatzen melanina galeratzen duen gaixotasun bat izan zuela, eta lehen beltzagoa izanik, pinto geratzen hasi zela, mantxa zuriz betea, bukaeran dena xuri geratzeko. Bai? Ea baduen lehengo argazkiren bat. Atera du kartera, eta eman dit konfidantza osoz. Aztarka hasi naiz kartera dirugabea, eta flipatu egin dut: kafesne ilunaren koloreko tipo guapo bat non agertzen den, lepoan mantxa txuri batzuk dituela. Bera! Michael Jackson naturala.

Hiru seme ditu, haziak. Berak alkohola du emazte. Duela urte batzuk hilabeteren bat egin omen zuen hartu gabe, huraxe inoizko tarterik handiena. Garbi hitz egiten du horretaz, badaki zer dagoen.

Uste dut biok gozatu dugula txolaratez. Harreman sarea aldakor jarraitzen du, eta beste batzuekin egon gara ondoren. Zaila zait fraile-monja gazte hippy hauengan ikusi dudak gizatasun mota deskribatzea. Beharbada broma giroak harritu nau gehien. Batez ere bi mutilak, dena esaten duten begitarte baketsuen jabe izan arren, espaloiko hauei adarra jotzen ari dira bide batez!

Ez naiz jabetzen zergatik hain erraz onartu nauten, eraman nauten, ondo sentiarazi nauten halako egiteko batean.

Azalpena

Handik kilometro erdira beste biadukto baten azpiko beste jende batengana gindoazela, bidean Maria Ele-



nak azaldu dit egiten dutenaren mamia. Bizarra, ilea eta azkazalak moztea, beren bihotzarekin kontaktuan jartzeko modu bat dela dio.

Hori omen da beren egitekoa. Maitatzea, eta esperantzaren izpi izatea itxaropena galdutako jende honengan. Maria Elenak dio Brasilgo *homeless*-ak ez direla hala bilakatu hainbeste ezintasun ekonomikoengatik, porrot pertsonal eta psikologikoengatik baizik. Depresioak omen dira gehienetan kalean bizitzen jartzeko detonanteak, itxaropena eraitsia duten pertsonak omen dira, beste ezer baino gehiago. Itxaropenaren eraikuntza bihotzetik hasten da, eta bihotzei bihotzeko mezuak ematea da nire lagun berrien bizi-egitekoa. Batzuk etxean hartzen dituzte, gaixo, ezindu eta egoera larrietan daudenak. Beste batzuk kalean ukitzen dituzte. Beraiekin kalean lo ere egiten dute tarteka.

“Maitatu”, dinost, “hori da egiten duguna”. Eta ez ei da beti erraza. Baina ziur dago horretarako prestatzeak eta hori egiteak emango dituela benetako fruituak. “Guk ez ditugu emaitzak ikusiko, baina noizbait eta nolabait, jaso duten maitasun horrek beren bihotzean fruitua ematen du”.

Ekonomia horrek transzendentzian bakarrik du logika. Jainkoaren esku sentituko ez balira, guzti honek ez lukeela zentzurik agertu dit, begietara patxadaz begiratu.

Beija-flor

Ohartzen omen da sufrimendu itsaso baten erdian beren ekarpena hutsaren hurrengoa dela, baina bere begiek bakearen bidez erakusten didate hori dela bere bidea. “E como a beija-flor”. Beija-flor kolibria da (lore-laztantzaila, behin Edjanek ze ilusioz azaldu zidan gogoan dut), Brasilgo txoririk txikiena, eta ez diot ulertu zer esan nahi zuen.

“Você nao conhece a historia da beija-flor?”

Suak hartu omen zuen behin oihana. animalia guztiek ziztu bizian aldegin zuten, dena utzita. Beija-florrrak ere bai, baina errekatik mokoan ura hartu eta suari tanta bat botatzera itzuli omen zen. Ondoren berriz, eta gero berriz. Esan zioten alferrik ari zela, ez zuela sutea horrela itzaliko. Erantzun zien bazekiela, baina hori zela berak egin ahal zuen apurra.

Maitasuna eta politika

Sao Pauloko udalak etxegabentzako aterpetxeak murriztu dituela esan didanean, harritu naiz, udala ezkerreko alderdiak daukala uste bainuen, eta galde-tu egin diot nolatan hori. Berari ez dio axola. Politika iraganean utzi omen du. Hori dena atzean utzi duela diost eskuekin atzeraka keinua eginez, lehen gauza horietaz pentsatzen zuela, orain ez. Orain maitatzera dedikatzen dela.

Ez omen dira saiatzen kalekoak berreskuratzen ere, beraietako askok ez omen dute nahikunderik ere horretarako. Larri daudelarik etxean hartzen dituztenean, hobetzean kanpora itzuli nahi omen dute, hango alkohola, tabakoa... kalea. Beraiena ez omen da berreskuratzekeo programa bat, maitatzeko hautu bat baizik. Eta hortik beharbada itxaropena piztuko zaiela, eta hortik nahikundea, eta hortik auskalo.

Beren erlijioso-taldeak uko egin dio inongo udal edo erakunderekin lan egiteari. Askatasuna galtzen omen da, erabat eta ondorio guztiekin pobreekin egoteko. Kalkutako Teresa aipatu diot beren lanarekiko lotura atzemanetz, eta harekiko errespetuz hitz egin dit, baina esan dit haiek erakunde publikoekin elkarlanean lan egiteko hautua egin zutela, eta horrek askatasuna kendu ziela une batzutan. Hauek ez dute inorekin inongo loturarik onartzen.

Pasa ditugu autobiapean jaiotako umedun familiarak. Urtebeteko umeari kontuak egiten jardun du Irmá Peregrinak, eta badaki irribarre egiten, eta pentsatu dut umeak gurasoek baino etorkizun hobea

izango duela. Baina buruaren lehen bueltan izan da. Bigarren bueltak dio garapen-optimismo hori soberan dagoela, eta estatistikak ez duela esaten ume horrek patu hobea izango duenik. Eta barruan atximur.

Autobia beraren pean apur bat aurrerago, etxegabeak integratzen saiatzeko gune batera eraman nau boskoteak. Ez dauka beraiekin zerikusirik zentroak, baina nigatik egin dute. Biaduktopeko gune antolatu honetan, etxegabeak bergizarteratzeko lehen pausoak ematen saiatzen dira, kapazitatziotxikiak eginez, taldean jaten jarriz, ontziak garbitzen, lan batzuk egiten. Itxura polita dauka. Apur bat kexatu egin zaie bertako koordinatzailea, bisitan hala etorri direlako abisatu gabe. Asko gustatu zait Bernardoren jarrera anarkoa, irribarre batez koordinatzailearen deserosotasuna gainditzen saiatu dena. “Etorri egin gara hemendik pasatzen ari ginelako, eta Joni erakutsi nahi geniolako” esan dio ezaxola puntu bat duen apaltasunez, eta irribarrez jarraitu du aurrera. Eta ondoren bazkariari buruz txantxa luzatu dio.

Koordinatzailea niri beren lana apur bat *saltzen* hasi da, eta berez oso interesgarria da, eta diskurtsoa ere ona (etxegabeei eman ez zaiela egin behar, ohitu egiten direla hartzera, eta kapazitatu egin behar direla, eta sakoneko diskurtso politiko hori guztia). Baina frantziskoren zoro xume berriekin egonda gero, gutxiago balio dit diskurtso burutsuak. Koordinatzailea esanez bezala ari da hutsean erortzen dela maitasun-laguntza, edo ez dakigula azkenean nora doan, ez bada egiten norabide egokian kudeaketa eta politika zuzena. Eta nik beti hala pentsatu izan dut. Baina historia distantzia ironiko (edo kosmiko) nahikoarekin begiratu gero, gehienetan hutsean erortzen dena ustez norabide egokian egindako kudeaketa eta politiken benetako emaitza da.

Beharbada nora doan ez dakiguna gure ahalegin politiko, ideologiko eta kudeatzaileen benetako emaitza da. Eta nora doan badakiguna, maitasunez bihotzera iritsitakoa.

Ez diot hau dena esan Maria Elenari. Alderantziz, aitortu diot nirea ere begiratu politikoa dela, eta bate-ragarri behar luketela bi begiratuak. Baina uste dut ulertu dudala bere hautua. Lehendik ere ezagutzen nuen, baina gaurkoa beste astindu bat izan da. Eta azkurea utzi du nire baitan.

Norberarentzat hil

Uste baduzu hau dena gugandik egiten dugula, oker zaude. Guk egiten dugunak ezer gutxi balio du. Jainkoaren maitasun eta itxaropenaren eramale sentitzen gara, gugandik pasatzen den fluxu baten parte gara. Bestela ez du zentzurik, eta guk ez daukagu hau egiteko indarririk.

“Hau egiteko apur bat niretzat hil egin behar dut” esan dit aurrerago. Hogeita hamar urte inguru ditu Maria Elenak, lehen abokatua zen eta lege-bulego bat zuen beste lagun batekin. Ondo zihoakion. Orain ez omen da erraza bost orduz bakarrik lo egitea, eta goizean goizetik eskainia bizitzea. Norberarentzat apur bat hil egin behar dela diost, bizia eskaintzeko. Uste dut badakidala zer esaten ari zaidan. Ibili naiz basamortuetan, eta malkar akigarrietan. Baina nik pasa ez ditudan mendikateak pasa ditu berak.

Aldarte

Ez da erraza azaltzea bost oinuts hauen begitartea. Begiratu, umorea, gauzak egiteko... aldartea, tonua. Ez nuen inoiz horrelakorik begien aurrean izan. Iru-dikatu bai egin nuen, Asiskoari buruzko gauzak irakurtzean, haren taldearen biziera errukior erradikal, axolagabe eta alaia pasa izan zait irudimenetik. Gaur halako printza bat iritsi zait.

Apur bat hitz egin dut eurekin elizaz eta Brasilez, baina hauek ez dute analisi potolorik egiten. Eurena badakite zer den. Eta nola bizi duten, zaila zait nire pertzepzioa deskribatzea.

Queremos muito aceitar

Kaleko bizilagunekin osatutako tailer batean izan gara ondoren. Beraiek ere ez zuten ezagutzen, niri erakustegatik sartu gara. Ez dakit beraiek edo nik flipatu dugun gehiago. Badute halako sentiberatasun bat arte sorkuntzaren aurrean. Euretako bi artegintzan trebatzen ari omen dira. Egiten duten lanak eta eguneroko lau orduko otoitzak aski denbora uzten die, nonbait, beste gauza batzuk egiteko. Lo egiten dute gutxi.

Irteeran atera egin zait: “Quero muito convidar los a amoçar”, muito enfatizatzailearekin indar eginenez, badaezpada, gonbidatuta nirekin bazkaltzeko arazoren bat jar ez zezaten. “Nois queremos muito aceitar”, esan dit txantxetan hitz-jokoa eginez Bernardok. Gonbidatzen pozik utziko direla, alegia. Ez diote eskainitakoari muzin egiten hauek, horretan

ere frantziskotarrak nonbait. Eta ni pozik. Jatetxe merke batera sartu gara seiok.

Beren taldean kantuak, arteak eta edergintzak duen garrantziaz mintzatu zaizkit. Eta, batez ere, alaitasunak. Bereziki bromazale fama omen dute tokeroek (*Toca de Asis* da erlijoso-taldearen izena). Brasilgo eliza bereziki bizia eta alaia dela diote beraiek, baina euren taldean txantxak toki berezia duela. Hala da nire irudipena ere, hauekin pasa ditudan bost ordutan etengabea izan da umorea. Bazkarian ere, nik ordainduko nuela jakin arren, zerbitzaria larritu du apur bat Bernardok, doan bazkalduko duten kontuarekin txantxa sortuz.

Agurtzera goaz. Besarkada bana eman didate, eta begiratuak gogoan geratu zaizkit. Maria Elenak, bere medaloi txiki bat eman dit. Irmá Peregrinak liburuxka bat. Han utzi ditut São Pauloren erdiguneko giza-olde eskergaren erdian. Urrundu eta hogei metrora, atzera begiratu dut. Ordurako ez ziren ikusten jende artean. Begiak sentitu ditut.

Begirale

Bada leku bat hirian behin malkoak ikusi zizkidana, eta gutxi gora-beherako orientazioa hartuta, harantz noa kuku bat egitera.

Gizon batzuen ondoan koskan eseri naiz. Brasilen, arraza eta mota guztietako jendearen inurritegi honetan areago, beti zara itxuraz beraietako bat, inori ez zaio burutik pasatzen atzerritarra zarenik, portugesez azeno nabarmenarekin hitz eginda gero ere, harritu egiten dira kanpotarra zarela esaten diezunean. Gizon hauekin beste bat gehiago naiz, neska ederrak pasatzen ikusiz begiak elikatzen dituztenen artean beste gizonezko bat. Niretzat, egia esan, jende ikuskizun koloretsu hau dena da dastagarri, eta arimarako gazi-gozo. Adiskide idazle batek behin esan zidan hipersensiblea zela edertasunaren aurrean. Ez dakit gomendatzen diodan Sao Pauloko kale jendetsuetan ibiltzea.

Armenia

Hala izena du goizean goiz omnibusak utzi nauen gunek. Turkiak XX. mendearen hasieran genozidiodioz ia desagertarazitako herriari oroimen txiki hori egitea, beste tanto bat Sao Pauloren alde. Armeniako genozidioan hildakoen omenez eraikitako eliza ikusi dut goizean itxita. Sarreran, oroi-



menezko plaka bat, portugesez eta grafia arraroko hizkuntza batean idatzita. Iluntzean bueltan pasa naizenean, sartzeko bulkada sentitu dut, lehenbait lehen Guarulhoserako omnibusa bilatzea komeni zaidan arren.

Hesiaren barruan ikusi dudak gizon bati keinua egin diot. Ezezkoa bezala esan dit, baina tira egin diot, bost minutuz eliza ikus dezakedan. Kasualitatez gogoeta-talde bat da elizan sartzekoa, eta orduantxe etorri dira hesiaren atera. Haiekin sartzeko aukera eman dit. Hasieran apur bat harriduraz begiratu didate. Koloretsua da eliza. Bortxaz hildako ia milioi bat armeniarren zerbait badabil elizbanku honen gaineko egurats isilean. Isildu besterik egin ote liteke historiaren aurrean?

Ez dut denborarik haien hizkuntzan otoitzak entzuteko. Emakume bat hurbildu zait. Taldeko

gogoeta bat egitera doazela, eta gonbidatuta nagoela esan dit. Eskertu diot, baina berehala irte-tekoa naizela. Nire izena galdetu dit, presente izango omen naute gaurko otoitzean.

Hamar ordu

Aurrekoan, duela zortzi hilabete, lan-bilera ketsuen ondoren, ustekabeko gaupasa surrealista batetik espabilatu gabe agurtu nuen Sao Paulo. Oraingoan, egunpasa izan dut operari.

Hamar ordu bakarti eta behatzaile izan nahi zuten, jende oldean murgilduta. Baina ez, ukitu egin naute, sorbaldan, besoan, eskuan, bizkarrean. Besarkadak jaso ditut. Eta ikutu egin naute. Autobusa hartzera ere, talde-gogoeta bati uko eginda nator. Laztandu egiten zaitu jende honek. Hori ere¹ bada Brasil.

¹ 'Ere' dio testuak, izan ere Brasilek beste geruza batzuk izan ditu aro honetan guretzat. Herrialde erraldoia Movimento Sem Terra-koekiko harremanaren lekua izan da, eta ekonomia solidarioaren inguruko pertsonekin ortzimugak aberasteko tokia, lan eta solas. Lurrik Gabekoen Mugimenduarekiko elkarlanak konprezio zehatza hartu du Paranako bailara pilotuan. Haiek tarteka doaz Euskal Herrira, gutako batzuk tarteka gatoz, injineru bat bertan bizitz lanean hasia da eta bigarrenaren bila gabiltza gure kooperatibetan. Hegonaldi honetan, ordea, eskala laburra tokatu da Brasilgoa, eta lantxo bat kenduta, Sao Pauloko kaleko 'ere' hori izan du kolore nagusi.

II. Ekuadorren dago Quito

Begiratu deserosoa

Ekuadorreko nazionalitate indigena guztiak biltzen dituen CONAIE erakunde nagusira joan gara bilera batera. Kasualitatez ekitaldi handia zegoen ordu berean. Herri indigenen eskubideetarako Nazio Batuen Erakundeko (NBE) arduraduna etorri da, eta Ekuadorreko nazionalitate indigena guztietako buruzagiak bildu dira berari oharrak egitera.

Koloretsua izan da ekitaldia. Zoruan frutaz, laborez, lorez eta kandelez osatutako borobil ederra dago, eta intzentsu-ke bat dario erditik. Nazionalitateetako gidariak beren jantzirik dotoreenez etorri dira. Elkarrengandik zeharo desberdin ageri dira kostako, oihaneko eta mendiko gidari desberdinak, gehienak ile luzez, batzuk aurpegia pintatuta, ilean zintak dituztela, beste batzuk jantzi koloretsuz, edo estilo desberdineko pontxo eta mantaz. Gatza atera duen lehenbizkoa Amazoniako emakume bat izan da. Ipurdirainoko ilea duen andere ederra, aurpegia marra beltzez pintatua eta bular parean hilabete gutxiko ume bat zintzilik duela, jaiki egin da, eta NBEko relatorearen aurrean hitzaldi gartsua egin du.

Exotikotasun koloretsu honen azpian, ordea, Urko eta bion begiratuak badu analisi eszeptikotik zerbait. Gidarien diskurtsoak ohikoak dira, indigenen izaeraren aipamen etengabea, eta eskubideen defentsa itxuraz bipila. Asko du kezatik, asko du aldarrikapenetik. Asko du ezkerren tik eta diskurtsoen bertsio indigenatik.

Baina ez. Ez dago gaitasunik, ez dago eraikuntzarako benetako proiekturik eta argitasunik. Ez dago hizkuntza eta kulturaren garapenari buruzko

estrategia-pentsamendurik. Eta estrategia-gaitasun gabe, diskurtsoak globo puztuak dira. Hizkuntzarik indartsuen eta zabalena den kichweraren kasuan ere, alarma gorri guztiak pizteko modukoa da egoera.

Deserosoa da begiratua, urteetan ezagutu dugunak, aurtan Garabiderek² ikusi dugunak, eta hemen berresten ari garenak erakusten duen panorama: amildegirako bidea hartuta daude hizkuntzak. Indigena gehienek diskurtso eta harrotasun merkea gorabehera, ez da mamitzen benetako gaitasunik.

Euskaldunok badakigu hala dela. Deserosoak izatea dagokigu. Erakargarriak, baina aldi berean gogorrak, seinalatzaileak. Gonbidatu bati ez dago-kion zorrotasunez jardun dugu, diskurtsoei kontzesio gutxi eginez. Eskerrak, gero irribarreek, bromek eta Urkoren pasta onak konpentsatzen duela gure mezuaren ziria.

Cesar Pilataxi

Cesar Pilataxi, ziurrenik berak uste duena baino pertsona garrantzitsuagoa da kichwerarentzat. Berrogeita zazpi urteko militante zaildua, txikia eta azal ilunekoa, buruan txapela eta atzean koleta-isatsa.

Kichweraren alarma gorria piztu duen gidari bakarretakoa da. Bere gaitasun mailan, dirudienek bakararra. Hamarkadak daramatza gidari indigena moduan, ardura nagusiak izan ditu bai mugimendu indigenan eta bai erakunde ofizialetan, baina guztiak utzi ditu, guztietan sumatzen duen funtzionariotze eta geldotzeak uxatuta. Diskurtso

² Garabide erakunde koxkor sortuberria da. Aurretik, kooperatibagintzatik munduko hegoaldera begiraten jardun duen ekimenak intuizio bat gauzatu du: "Bere 'garapenerako kooperazioa' pentsatzean, herri batek ez du galdetu behar soilik zenbat diru daukan emateko, baizik eta ze esperientzia dituen herri moduan herrialde gabetuekin trukatzeko". Ibilbide hori eginik, beste alor bat zegoen ukitzeke: hainbat aldiz erreferentzia bila zetozkigun gidari indigenentzat ez genuen fundamentuz esperientzia trukean erantzuteko modurik, beste alor batean ari baikin. Baina euskal herrien esperientzia 'unibertsalena' ziurrenik euskararena da, eta bereziki trukagarriena, azken berrogei urteko euskalgintza modernoaren esperientzia multzoa, lorpen nahiz ezintasun. GKEen panorama ikusirik, horretarako berariazko erakundea sortzeko hautua egin genuen, beste alorrean pilatutako esperientzia baliatuz. Urko Kolomo aipatzen da orriotan, Garabideko kudeatzailea, zereginik gehienak elkarrekin egin genituen Ekuador eta Bolivian, bera egun batzuk lehenago joanda.

Euskararen esperientzia kalitatez destilatzea dagokigu. Lan honek ez du eskatzen esperientziatxo batzuk konpartitzea bakarrik: bisiolana eta estrategia-begiratu eskatzen du egoerak. Eta hain zuzen ere horixe da euskararen herri horretan ere falta duguna...

sutsuaren eta ekiteko bisio faltaren arteko etena ezin eramanik. Erakunde handietatik irten eta Kawsay fundazioa sortu dute kontzientzia maila jakin bateko pertsona gutxi batzuk Ekuadorren, Perun eta Bolivian. Bera da arima Ekuadorren. Ez dirudi gidari indartsua gurekiko tratuan, bere apa-lean. Antza denez, Euskal Herrian Garabiderekin izandako truke-programan³, bere intuizioen berrestea ikusi zuen. Hainbatetan luze eta zabal hitz egin genuen orduan. Konfiantza oinarrizko horrekin hartu gaitu orain.

Erakunde indigena eta ofizial nagusietan ibili gara, eta ez da inon sumatzen nahikotasun mailaren aztarnarik hizkuntzaren gaia dagokion lekuan jarri eta norabide bermedun bat irudikatzeko ere. Cesar bakarrik hasi da mezua zabaltzen. Autoritate moral handia du. Bera izan zen koletaz ibiltzen hasi zen bakarretakoa. Bera izan zen Inti Raimi eguzkiaren jai bultzatu behar zela esan zuena. Bera izan zen gaur onartuak dauden hainbat 'zorakeria' proposatu zituena. Aitortzen diote, itzala du. Eta orain, berriz

Deserosoa da begiratu, urteetan ezagutu dugunak, aurten Garabiderekin ikusi dugunak, eta hemen berresten ari garenak erakusten duen panorama: amildegirako bidea hartuta daude hizkuntzak. Indigena gehienek diskurtso eta harrotasun merkea gorabehera, ez da mamitzen benetako gaitasunik

ere mezu deserosoa ematen hasi da. Ez "educación bilingüe intercultural" delakoak (ia erabat gaztele-raz denak), ez balizko irrati indigenek, ez gaiari buruzko diskurtsoek daramate inora nortasun kichwa. Baina mugimendu indigenatik sortutako jende asko bizi da ekintza hauetatik jenez. Posizio batek, lanpostutxo batek, errazegi irensten ditu kichwen gaztetako sugarrak. Eta anaia kokatu eta erosotuek bertan-goxo egiteko duten interesaren aurrean, berari astintzea dagokio. Hor dabil bere kapelu eta koletarekin batera eta bestera.

Elkarrekin lantzen ari garen TVK kichwerazko telebista egitasmoa ere 'zorakeria' moduan aurkezten du bilera guztietan, bere herrikideei transmitituz errealitate bihurtutako zorakeriekin bakarrik egin dezaketela aurrera. Hitz egin dugu hezkuntza ofizial "bilingüetik" atera eta guraso zoroek sortutako eskola kichwua propioak abiarazteaz ere. Helduei kichwerazko 'gau eskolak' ematen ere hasi berri dira Quiton, udazkeneko *truke*-tik bildutako ideiarekin dirudienek.

³ Truke Programa hilabete inguruko ekitaldia da. Munduko hainbat eragile hautatu eta gonbidatzen dira hilabetez Euskal Herrira, herrialde desberdinetako hamar bat pertsona. Truke intentsibo bat antolatzen da, esperientziak zuzenean ezagutuz, ikastaroen, bisiten, hitzaldien, mahai inguruen eta lehen mailako protagonistekiko elkarrizketen bidez. Programak badu formaziotik, badu bisitatik, badu harremanetik eta badu, guretzat, festatik. Azken bederatzi urtetan urtero antolatu da, kooperatibagintzari eta beste alor batzuei lotuta. Iaz, Garabide sorturik, lehen aldiz hizkuntza-garapenaren inguruan erabili genuen formula hori. Hizkuntza-garapeneke esperientzien lehen truke programan Afrikako eta Ameriketako hainbat herri indigenetako gidari edo eragile izan genituen partaide. Intentsitate berezia izan zuen taldeak eta programak. Partaide haietako bat izan zen Pilataxi.

Barrutik kanpora. Barrutik kanpora. Bi aldiz idatzi dut, handi sentitu dudalako azpimarratu beharra. Muina behar da sendotu, ezer sendotu behar bada, eta hortik sortzen dira merezi duten proiektuak. Dela talde, elkarte, ikertegi, fakultate, mugimendu, edo hizkuntza komunitate

Pena pixka bat ematen dio Urkori. Nik ez nuke pena esango, uste dut ondo ulertzen dudala. Duen ikuspegiak amesteko materiala ematen dio, eta horrek erosotasunak desestabilizatzen ditu.

Elkarte frankotiradorea

Erakunde ofizial eta handietan ibili da Cesar. Mugimendu indigena 'nazionalean' gidari eta instituzio publikoetan arduradun. Eta aitortzen du beti egon izan dela GKEak eta fundazioak sortzearen kontra. Izan ere, Latinoamerikan milaka erakunde sortu dira azken hamarkadatan, nazioarteko kooperaziotik edo toki ofizialetatik zetorren dirua kaptatuz proiektuak kudeatzeko, eta mesfidantzaz ikusten du elkarte hauetan sortzen den klientelismoa.

Mugimendu indigenan eta instituzio ofizialetan hainbat urte egin ondoren, ordea, denak utzi eta Kawsay fundazio txikia sortzea deliberatu du. "Yo que siempre he estado en contra de eso. Pero desde las instancias grandes no se puede". Nahiko lan badutela uste dut elkartetxoari ekonomikoki eusten, duela urtebete edo larri ibili zen, uzteko-tan. Baina ikuspegi sakona eta ekintzarako zalutasuna bilatzen duela uste dut, elkarte frankotiradore honetan.

Txikitetasunetik, kualitatetik eta autonomiatik ekiteko hautua, mende berriaren hasieran. Gaiak badu mamia.

Intuizioa bagenuen, baina alorra espero genuena baino oparagoa da, eta unea, uste genuena bezain gorria. Lehen urterako, Amerikako hizkuntza indigena handien eragile nagusien ondoan gaude. Eta txarragoa dena, ia 'garrantzitsuegi' bezala ikusten dugu euskal esperientziatik egin litekeen lana

Pausoen ama

Elkarrekin lantzen ari garen telebista kichwaren proiektua ondo dago, baina orenen gainetik dagoen lehentasun bat aipatu diogu: muina sortzea, pertsona multzo bat trinkotzen hastea.

Belaunaldi bat minimoak amestera iristen ez denean, zera egin behar du: geratu, eta hurrengo hamarkadarako jauzi bat pentsatuko duen belaunaldi bat prestatu.

Euskararen herrian ere gauza batzutan muina erein behar dugula ikusten hasiak gara. Goiko paragrafo hori gure hizkuntza komunitatearen ikuspegi politikorako da, beharbada, egokia. Ekuadorren, egoera ikusita, pauso guztien ama da. Horretan laguntzeko prest agertu gara, eta bakoitzak bere etxekolanak hartu ditu.

Barrutik kanpora

Barrutik kanpora. Barrutik kanpora. Bi aldiz idatzi dut, handi sentitu dudalako azpimarratu beharra. Muina behar da sendotu, ezer sendotu behar bada, eta hortik sortzen dira merezi duten proiektuak. Dela talde, elkarte, ikertegi, fakultate, mugimendu, edo hizkuntza komunitate. Muina osatu, eta hortik indartzen da egitura, edo erlatibizatzen egituraren forma. Muina elikatu, eta horrek bihurtzen gaitu indartsu edozeren aurrean.

Berez, hau euskararen herriarentzako mezua da. Han gaude oraindik hori ikasteke. Ez da erra-

za horretaz ohartzea, diskurtsoan dena denean global, dena gizarte, dena askotariko eta lauso. Ondo dago marko hori, baina hor, identitate kolektibo bizigarrien bizi ikurra espirala da: barrutik kanporako espirala, galaxiaren karakola.

Hobe zukeen euskalgintzak ere duela urte batzuk karakol-espirala hartu izan balu imaginariotzat.

Ardura

Gure ardura handiagoa da duela pare bat urte usteko genuena baino. Alaiki sortu genuen Garabide, beste alorretan pilatutako esperientzia baliatuz, ri-rau bost lagunen artean.

Intuizioa bagenuen, baina alorra espero genuena baino oparagoa da, eta unea, uste genuena bezain gorria. Lehen urterako, Amerikako hizkuntza indigena handienen eragile nagusien ondoan gaude. Eta txarragoa dena, ia 'garrantzitsuegi' bezala ikusten dugu euskal esperientziatik egin litekeen lana. Alegia, ia erreferentziarik gabe daudela, eta mar txan dituzten ekimenak ez direla iristen 'estrategia' dei litekeen mailara, benetan hurrengo belaunaldietan hizkuntza komunitate eta herri indigena bezala iraun ahal dezaten.

Ohartu gara gidari gutxi direla hizkuntzen bizi-estrategia garatu dezaketanak. Eta dauden apurantzat, gu garrantzitsu bihurtzen hasi garela. Eta ze baliabide, ze denbora daukagu guk!? Tira, horretarako sortu genuen Garabide, baina uste baino lehen sartu gara otsoaren ahara. Ardura handia da une honetan gudan jarri duten konfiantza maila. Eta gure artean Urko bakarrik dago horretara lanean. Nire lanean nahiko ertzekoa da orain egiten ari naizen hau, eta taldeko muineko-entzat ere bai. Horretan bete-betean jardungo duten pertsona egokiak ekarri behar, poliki-poliki, baliabideak sendotu ahala.

Euskararen esperientzia kalitatez destilatzea dagokigu. Lan honek ez du eskatzen esperientziatxo batzuk konpartitzea bakarrik: bisio-lana eta estrategia-begiratu eskatzen du egoerak. Eta hain zuzen ere horixe da euskararen herri horretan ere falta duguna...

Has gaitezen entzutetik, eta mintza gaitezen.

Zilborra

Munduaren erdigunea identifikatzea omen zen zibilizazio andinoaren gurarietako bat. Hainbat



saio eta kalkuluren ondoren, aurkitu omen zuten espazio guztien erdia, besteak beste eguzkiaren gorengo puntua hartzen duen gunea ere tartean omen zuena. Quitok 'zilbor' esan nahi omen zuen, eta ez da hiri bat edo toki zehatz bat, lau erreferentzi barreiaturen arteko espazio zabal bat baizik.

Begiratuta, egia esan, munduaren periferiatik gehiago du. Bai gunea pobre bukaezinetan, bai gunea aberats imitaziozkoetan.

Baina kontuz, Joserekin gaude. Bere hiriaren maitemindu bat da, eta bere maitea miresten irakatsi digu apur bat. Begiratu irekia bada, Latino-amerikako hiri erraldoiak altxor agortezinak dira. Quitok, gainera, asko du bakarretik.

Ohartzearen abiaduraz

Tawantinsuyu zahar eta zabalaren ondorengo diren indigenak gero eta jakitunago eta ohartuago daude Andetako kulturaren hedaduraz eta sakontasunaz. Ingurumenaren garrantziaz gero eta ohartuago omen gauden bezalatsu. Bietan ere, auskalo zein den kontzientziaren gutxieneko abiadura, hondamendiari lasterketa irabazteko.

III. Bolivian mamia dago

Cochabamba

Cochabamba mendien arteko bailara zabalean kokatzen da. 2.600 metrora 'bakarrik' dago, altiplanoaren aldean apal, eta horrek bizitzeko toki inbidiagarri bihurtzen du. Bailarako klimatik hasi eta mendietaraino hiru pisu ekologiko desberdin ditu, eta komunitateek tradizionalki hirurak konbinatuz ekoizpen aberatsa lortu dute. 240 patata espezie lantzen omen ziren oraintsu arte eskualdean. Andeetako zibilizazioaren gune berezi batean gaude.

Inti-eguzki bikainarekin hartu gaitu hiriak, eta oihal koloretsuz apaindutako bilera zabal batekin bildu gaitu Kawsay elkarteak, Andeetako hiru herrialdeetako mugimendu indigenaren 'beso teknikoa' izateko jaio zen erakundeak. Mugimendu indigena estatu-artekoaren gune intelektual eta eragile moduan ulertzen dut nik. Nonbait egotekotan maila estrategikoa, pertsona hauengan dago (hauetako batzuetan). Eta justu gure mezua da hizkuntzaren garapenean estrategia mailatik urruti daudela. Arlo bakoitzeko arduradunek beren helburu eta egitasmoak azaldu dizkigute, eta iritsi zaizkigu. Gure testigantza eta mezua ere iritsi egin da.

Uf, Jose Cerruto, Leonelen anaia, tipo bizkorra iruditu zait. Hauek badakite zertan ari diren. Beste kontu bat da nahikotasun maila egoeraren handiari buelta emateko. Baina hemen Ekuadorreko aldean beste maila bat dago, beste ganora-dentsitate bat. Eta harre-ra, apaltasuna, hurbiltasuna, Ekuadorren handia bazen, hemen are gehiago iristen da bihotzera. Azkar, oso azkar hasi da Bolivia sentipenetan txoko bat egiten.

Prozesua

Azalpen asko eta interesgarriak entzun ditugu. Denen artean, Jose da sintesi gaitasuna duena. Egoerak ikustarazteko etengabe metafora eta alegoriekin mintzo da.

Prozesu baten jakinaren gainean jarri gaitu. Urte asko eta asko daramate indigenek Bolivian beren momentua prestatzen, eta orain omen da une historikoa. Urteetan, komunitate-antolaketa tradizionalak zaindu dituzte, belaunaldia apur bat prestatu egin da politikoki, komunitateak landu dituzte mezu aldetik,

bozkatzaile masa sortu dute, gehiengo dira Bolivian, eta koadro batzuk badituzte. Aldaketa prozesu bat omen dago martxan, eta sustatzaile nagusia ez da langile-klasea (lehenago uste izan zuten moduan), herri indigenak ditu motor nagusi. Gobernua eta departamentu-prefektura batzuk lorturik, prozesu horrek errotik ukitzen ditu oligarkiaren interesak, eta lehia lehertzen ari da.

Puyaren metafora

Irudien bidez harilkatzen du diskurtsoa Leonelen anaia gazteak. Puya Raimdi da lore bat ehun urtez behin loratzen dena. Urte horietan guztietan energia pilatzen egoten da, eta halako batean lorea botatzen du, ehunka lore txikiko alarde bikaina urte bakar batean. Hurrengo lorea, beste ehun urtera. Boliviako indigenak prozesu horretan ei daude. Urte pila bat daramate komunitateetan indarra pilatzen, kontzientzia hartzen eta politikoki indartzen. Oraintxe omen da lorea botatzeko unea.

Ez dadila gertatu, dio, landarearekin maiz gertatzen dena, nekazariak moztu egiten dutela lorea eman baino lehen, sutarako oso egur egokia omen du eta. Kolibriak aipatu ditu gero, loratze hori ekartzeko lanean, eta Sao Pauloko oinutsekin gogoratu naiz.

Bilera askotarikoa

Bazkaria eskaini digute kanpoko mahai batean, eta apur bat liluratu egin gaituzte lurra emandakoaren aniztasunarekin. Gauza erdiak-edo baziren inoiz ahoratu gabekoak. Kolore eta forma guztietako patatak, haragi gazitua, arto erraldoiak, gaztak, zukuak. Guri harrera egiteko bazkari-alardea da, abegi ona.

Arratsaldean euskal esperientziaren bueltan beren prozesuko hainbat gauza sakontzea gaitzat jarrita, gidari eta eragile pila bat gonbidatu dute. Han hasi dira iristen guarani 'kapitainak' (ez dakit zergatik kapitain hitzarekin aurkeztu dituzten) behe-lurretatik, aimarak goikoetatik, eta beste hainbat eragile kechwa eta beste etnietakoak, tartean ikasle gazteak. Intentsitate handikoa izan da trukea, beti hizkuntza bera hitz egitea erraza ez bada ere. Inpaktua sortzen du euskalgintzaren ibilbideak, eta gure interpelazioek. Zorrotz gabiltza, kontzesio gutxiarekin.



PHOTO © TXOMIN TXUEKA

Bost orduko loarekin eta honen guztiaren intentsitatearekin, burukominari eutsi ezinik nago, baina hain da ederra sortu den kaosa, bukatuta gero ere denbora pila bat egin dugu eskatzen ziguten denei azalpenak eta aurreragorako emailak ematen. Gogoia dago, ekimena dago. Urkok ez zekien ze aurpegi jarri jakin duenean guaraniek 20 orduko bidea egin dutela gure bilera honetara etortzeko, eta bueltan doazela beste 20 orduko bidaian. Beste askok ere ordu mordoak egin dute. Nola ez bortxatu norbere burua apur bat?

Hostoak

Egia esan burukomina arintzeko lagungarri bat ere izan dugu. Bilera aurrera zioala wipala (bandera indigena) jarri du mahai gainean Kokok, eta koka hosto sorta bat barreiatu du bere gainean. Hura ahoan hartuta egin dugu jardunaldia. Bihar gehiago beharko dugu Orurorako, hura ia 4.000 metrotara dago, eta egun osoko lan-jarduna daukagu.

Kontuz gazteekin

Gazteak politikoki lantzeko talde bat sortua dute Kawsaykoek. Izan ere –adi honi– gazteak dira aldaketa prozesuaren kontrako ikurra.

Gu etorri baino egun batzuk lehenago, Sucre hirian indigena batzuk hartu, biluzarazi, gobernuaren kontrako gauzak esanarazi eta plazan publikoki umilatu zituzten. Eragile protagonistak gazte unibertsitarioak izan ziren.

Hedabideak dira oligarkiaren tresna nagusi, eta gazteek omen dute hedabideekiko lotura, aurreko belaunaldiek ez bezala. Eta beraiek dira, bereziki unibertsitarioak, herrialdean hasi den aldaketa prozesuaren kontrako sinbolo, indigenak aldaketaren sinbolo diren moduan. Gaurko egunkarietan, oligarkiak bulzatutako autonomia erreferendumaren garaipena ilustratzeko neska gazte erakargarri eta moderno baten argazki espontaneoak jarri dute egunkarietako azalek, mutil baten bizkar gainean banderarekin ospatzen. Egia esan, ederrak dira neska eta argazkia bera. Erakargarritasunaren lehian zaila da kapitalismoari irabaztea.

Boterea versus gobernuak

Brasileraiko hegazkinean ikasleen azterketak zuzentzen etorri nintzen, eta ariketa bat zera zen, egungo gizarteetako botere-egitura deskribatzea, Noam Chomskyren ingelesezko testuetan landu dugune-

Erreplika deserosoa egitea dagokit, hain abegi ona jasotako gonbidatuari ez badagokio ere. Elkar bizitza garrantzitsua dela erantzun diot, baina con-vivir, vivir-con dela eta horretarako lehenik *vivir* egin behar duela hizkuntzak, eta hizkuntza bizi dadin nahi badugu espazio hegemonikoak izan behar dituela nonbaiten

tik. Gaia edozein liburuk baino gardenago erakusten du Boliviako une honetako koiunturak.

Ikustekoa da ze mekanismoren bidez ahalduen ekonomikoek eta hauei lotutako botere-sare osoak Evo Moralesen Gobernuak higatzen diharduen. Egunotan, adibidez, garraiolarien grebak piketeak sortu ditu eta errepide nagusiak geldiarazi. Greba antolatzen oligarkia ari da, enpresa handiek taxutu dituzte garai bateko ezker kutsuko aldarrikapen diskurtsoak, hedabideak oro erresonantzia kaxa moduan orkestatuta.

Ahalmen-gune desberdinez osatzen da gizartea, eta xake partidaren, botere-gune bakoitzak bere fitxak jokatu behar ditu, guneok esku desberdinetan dau-den kasu apurretan.

Ahalmen-guneen xakean norbere fitxak jokatu. Gure herriko subirautasunen xakean, norbaitzuk somatu dute –sen onez, aitortu behar da– desorekatuegia dela fitxa errealean kopurua, eta orekatze-ko bide bakar moduan zaldi beltza darabilte taulan, ahalegin miressgarri bezain katastrofikoan. Ez erregina eta ez dorre gaude, ados. Bi alfilei aukera ematea beste biderik ez dakit badugun mende berrian.

Chacanaren gako laukoitza

Beharbada hau da egunotako gauzarik sakonena. Prozesu sozial guztiak, gizarte bizitza osoa, lau dimentsio-tan ulertzen du Andeetako kosmobisioak, eta horretan oinarritzen dira aldaketa prozesuaren protagonistak.

Munai, yachai, atiy eta *ruway*, kechueraz esanda. Dimentsio hauen irakurketa bat dator gure intuizio askorekin, beharbada gauza batzutan osoagoa da. Nahimen, ahalmen, adimen eta ekimen, itzuli ditut lehen kolpean. Baina gero Leonelekin beste era bate-ra ikusi dut. Beste modu batez, beste lotura batzuekin adierazten ditu gizartegintzaren funtzio filosofikoak, ekonomikoak, jakintzazkoak eta antolaketakoak. Beratzen uzteko moduko ideiak, aurrerago lantzeko.

“Os vamos a exprimir”

Hala esan du Leonelek⁴ une batean, hurrengo bi egunetarako programa aipatu digunean. Bai, abegi berezia egin digute Bolivian, eman egin digute, bai eskatu ere. Lo gutxi eta bilera asko.

Ez dut nigan turista sen handirik sentitu ohi. Ez dut argazkirik ateratzeko beharrik izaten –zer pentsatua ematen didate nonahi argazkiak ateratzen ibiltzen direnek–, ez dut bertakoekin edo inguruko naturarekin argazki exotikoetan ateratzeko nahirik sentitzen, ez eta bertako gauzak erosteko bulkada gehiegizkorik ere. Baina bidaiari errante sen apur bat bai, eta kontxo, Cochabambara etorri, egun osoa bileran eman, eta kalea patxadaz sentitu gabe lo egin eta Orurora joateak barruan krak eginarazten dit. Gauez bada ere, kalera atera eta jendea ikusi, aurpegi zaporea dastatu, haizearena, kaleena, lurra eskuetan hartu...

Aukera laburregiak izan ditugu, baina laburrean ederrak. Toki bakoitzeko borrokalariekin egiten delako bidaiarik ederrena lekuen bihotzera, eta egin behar duzuna egiten ari zarela dakizularik ‘bide batez’ ikusten duzunaren zaporea delako, pittin bat izan arren, leku horretan egon izana ziurtatzen dizuna.

Aho biko ezpataz zauriak sortzen

Ez da erosoa ohartzea: hizkuntzak biziartzeko behar den minimotik behera daude hauen planteamendu

⁴ Leonel duela urte batzuk ezagutu genuen Euskal Herrian. Mugimendu indigenan hainbat lan egindako kechwua ilustratua da, Finlandian hainbat urtez bizitakoa. Oruron indigenek gobernua lortuz geroztik, gobernadorearen beso eragilea da. Pentsamenduan jantzia, indigenen filosofian arradikala eta eragiletzan kilometro batzuk egina.

onenak ere. Ekuadorren baino baldintza eta fundamentu hobeak badaude ere, errigore soziolinguistikotik begiratuta ez daukate etorkizunik bide honetatik. Eskola bati, hedabide bati, hizkuntzari berari eskatzen diotena, bizitzeko gutxienez behera dago. Eta zaila dute beren identitate-diskurtsoak goxatutako herio-bide estali horretatik ateratzea, hain da konplexua lurralde berean elkar ukitzen duten hizkuntza desberdinen kaosa.

Beldur nintzen hitza ateratzeko. Euskal Herrian bertan ere erabiltzen hasi berria bainaiz, eta han politikoki inkorrekttoa bada, pentsa hemen. Baina bota egin dut, honaino etorrita ez gaude epelak izateko. *Hegemonia* da hitza, eta hegemonia-guneak artikulatzeko beharra hondoko ideia. Hezkuntza 'bilingüe multicultural' deitzen duten horrek zurlora daramatza. Ez du inondik ere jatorrizko hizkuntzetan hiztun osoak sortzeko baldintzarik sortzen, ez da hango A eredu batera ere iristen. Zer da hiztun oso, *hablante completo*? Ibilbide naturala eta kulturala bere hizkuntzan egiteko gai dena, beraiantzat kontzeptu urrunegia, baina biziraupenerako hain oinarritzakoa... Beraien aurrean, adibide eta metaforez hornituta bada ere, pertinenteak diren kontzeptu gakoak ezpata bezala erabiltzea dagokigu, aho biko ezpatak direla jakinda.

Benetako gidari dituztenetako batzuk oharitzen dira zurlora doazela, baina identitatearen garapenaren pentsamendu estrategiko bat izateko baliabiderik ez dute. Pentsamendu soziolinguistikoa eta hololinguistikoa tresna batzuk eman behar lizkieke, eta gu hortik gertuago gaude. Intuitiboki gure esperientziaren sintesitik beraienean zauriak sortzen ari gara.

Hegemonia espaziorik gabe hizkuntzak ezin direla garatu jaurti diet. Espazio jakin batzuetako bilinguismoa handiak txikia jateko modu bat dela, ez dutela funtzionatzen egunkari eta aldizkari ustez elebidunek, eskola planteamendu ustez elebidunek (are argiago hemen *elebidun multikultural* deitzen dioten eredu erabat asimetriko eta testimonialak). Norbanakoa izan litekeela elebidun edo eleaniztun, baina gune jakin bati, familia bati, erakundetxo bati, aldizkari bati, eskola bati, hizkuntza baten hegemonian ardaztea dagokiola, handik eleaniztasunera irekitzeko. Espazio horiek izan ezean, hizkuntza batek ez duela garatzen jarraitzeko aukerarik eta arrazoirik.

Hegemonia espaziorik gabe hizkuntzak ezin direla garatu jaurti diet. Espazio jakin batzuetako bilinguismoa handiak txikia jateko modu bat dela, ez dutela funtzionatzen egunkari eta aldizkari ustez elebidunek, eskola planteamendu ustez elebidunek (are argiago hemen *elebidun multikultural* deitzen dioten eredu erabat asimetriko eta testimonialak)

Hiru egunen buruan bilakaera bat ikusi dut gai honekiko Leonelengan eta beste batzuegan. Baina lehen egunean salto egin zidan Cochabambako batek, esanez beraiek 'konbidentziaren' ereduak dutela eta ez 'hegemoniarena'. Horrek esan nahi du identitatearen diskurtsoa erabiltzea baina elkarbizitzaren izenean gaztelaren nagusitasuna eta hizkuntza propioaren espaziorik eza, transmisioaren azken belaraldira amiltzea. Egia esan, landuenek badakite hala dela, baina beste ezer amesteko elementurik apenas.

Erreflexuak, eta gaiari pasatzen ez uzteko hautua. Erreplika deserosoa egitea dagokit, hain abegi ona jasotako gonbidatuari ez badagokio ere. Elkar bizitza garrantzitsua dela erantzun diot, baina con-vivir, vivir con dela eta horretarako lehenik *vivir* egin behar duela hizkuntzak, eta hizkuntza bizi dadin nahi badugu espazio hegemonikoak izan behar dituela nonbaiten. Hegemonia kontzeptuak ez duela itxitasuna adierazten. *Hegemonia irekiak* antolatu beharko direla, gaztelarara eta beste hizkuntzetara irekiak, baina hizkuntzaren garapena eta erabilera ziurtatuko dutenak herri bateko eskola jakin batean adibidez. Erantzun beharrak inprobisazitatiko idearekin geratu naiz gero: *hegemonia irekiak* kontzeptua landu behar dugu, gidari indigenen imaginarioak zirikatzeko.

Eta esan badut, da juxtu hemen horretarako baldintzak egon daitezkeelako. Galdetzen eta eskatzen ari direlako zein diren erreferentziak. Eta gaztelarari tokia eginez une honetan hizkuntzei bizitzeko aukera

bat emateko koiuntura historikoan oraintxe daudelako, hamarkada honetan, gobernu honekin, mugimendu indigenaren loratze-puntu honetan. Altiplanoan telebista sartu eta masiboki heda dadinean, hamarkada pare batera, Latinoamerikako toki gehienetako prozesu-puntu egongo dira. Beste aldetik, egia da hizkuntza desberdinen solapamenduak konplexutasun handia eranstean diola gaiari. Baina badituzte aukerak, eta une honetan kontzeptu gako batzuk mahai gainean jartzea tokatzen da. Kontzeptu horien atzean bi gauza ditugu: batetik, euskararen herriaren esperientzia zehatzen irakaspen mugatua. Bestetik, hortik eta munduko beste esperientzietatik ateratako nolabaiteko jakintza unibertsalagoa.

Hau luze kontatu dut, bi gauzagatik. Batetik, harreman honetan behar dugun gogoeta-mailaren konplexutasunaren adibide. Bestetik, hegemonia-espazioen eta *ardazte ireki* kontzeptuaren gaia Euskal Herrian ere une honetan benetan barneratu gabeko gaia delako, eta planteamendu honen ondorioak dirudiena baino urrunago doazelako⁵. Diskurtso progresistek nortasunaren gramatikarik ez dutela ekoiztu ohartzen garenean, generazio berriago bateko debate politikorako elementuak dira.

Eta azken gogoeta. Euskal Herrian bertan dugu gure kinka gorriaren sintesi eragilea egiteko premia. Eta hortik bakarrik, gure onenetik bakarrik gaude une honetan beste herriekiko elkarrikeria emankorra sortzeko moduan. Eta gure sintesia egiteke daukagu gure artean, ahul gaude. Bestetik ederra da ohartzea: batera doaz norbere iparra eta hurkoarenganatzeko indarra. Ez derrigor hurrenkera horretan, ez beti norabide bakarrean.

Grafitia eta leloa

Pintada bat: *“Cristo vive, ahora es presidente”*.

Iragarki bat, unibertsitate pribatu batena: *“Transmitiendo valores. Formando vencedores”*.

Mondragon Unibertsitateko komentariorik?

Goi-lautada

Goi-lautada aurreko goi-muinoetan igarotzea bedein-kazio bat da.

Cochabamban bideak gora egiten du, hiriak dituen 2.600 metrotatik hasi eta 4.200 metro ingurura. Lau mila eskasean dago hurrena hartuko gaituen hiria, Oruro, departamentu zabal bateko hiriburua, indigenen egosialditik sortutako aldaketa politikorekin esperimenduzko gune esanguratsua.

Kolore guztietako harri eta lurak pasa ditugu. Goi-lautada aurreko goi-muinoak leihotik begira egin ditut, arima elikatu behar da, egun gogorra datorkigu eta. Rut eta Irma kawsaytarrek eta Urko planak egiten doaz bidean, postgradoa, truke-programak, beren pedagogia interkulturalerako ikastaroan gure modulu bat... Nik tarteka aportatzen ditut ideak, baina ezin dut begirik kendu pasatzen ari garen mundu zatitik. Ebanjelioa ezagutzen duenarentzat, Marta eta Mariaren artean gaur Marta izatea hautatu dut.

Planetako leku bakana da. Argindardun etxerik ez dugu pasa bide osoan, adobezko etxe koxkorak oso tarteka. Argindarrarena eragin kultural eta politiko handia duen kontua da. Telebista masiboki iritsi ez den Hego Amerikako giza-ingurune zabal gutxietako bat osatzen dute Boliviako lurroak, eta horrek badu zerikusia bere izaera eta potentzial politikorekin. Adi datu horri. Izan ere, altiplanoa kooperazio-gunetzat hartzeko proposamen zabala egingo digu Leonelek (bai nortasunaren gaian, bai produkzio komunitarioaren gaian), eta argindarrarena –telebistarena– kontuan hartzeko datu interesgarri bat da. Badu zerikusia gero ministrordeak esango digunarekin ere. *Garapena* da nahi duguna, ala *ondo bizitzea? Zer da ondo bizi?*

Llama taldeak beren llamazaiekin. Garia aldapa malkarretan multzo txikitan ereina. 4.495 metro ditu lepoak. Muinoen ondulazio marroi bukaezina ortzimugaren alde guztietara, urdinpean. Eguratsaren hezetan txikiak ikuspegia garden bihurtzen du, urdina garbi. Errekak ertzak zuri ditu izotzez.

⁵ Hegemonia-guneen gaia eta lurralde kontzeptua kudeatzeko hiru plano jostea dagokie, beharbada, euskal herriei. Batetik, lurralde-hegemoniarik gabeko sare izaten asmatu behar du euskararen komunitateak. Eta baina lurralde-hegemonien gaia debate politiko-kulturalaren erdian jartzeko prestatu behar du beste belaunaldi bat, itenbiderik gabeko diskurtso korrektoetan kateaturik orain botereguneetan dagoen belaunaldi modernoarentzat berandu denez. Eta baina lurralde kontzeptua eta boterea bera egituratze estatalarekin soilik identifikatu gabe, ahalmen-gune askotarikoak irabaztea dagokio, hegemonia-lurralde irekiak sortzea, lurraldetzat ulertuz erakundeak, guneak, sareak, arloak eta bai, seguruaski, zenbait espazio fisiko ere. Kontraizanean daudela dirudi, baina baliteke hirurei heldu behar izatea hurrengo hamarkadetan.



PHOTO © TXOMIN TXUEKA

Irmak azaltzen digu ikusten ari garen lurrean eta ikusiko ditugun guneetan egindako eraikin eta toki sakratuek izarren arabera eta chacanari lotuta logika bat dutela.

Berez

Berez sortzen da otoitza Boliviako goi-muinotan. Biziazen iturri sakratua sumatzeko ez dago abstrakzio beharrik. Berak esaten du dena.

Zerbaitek sentiarazten dit, nire bakera hurbiltzeko, erdigunea ukitzeko, hementxe mugagabeko denbora pasa beharko nukeela.

Baina ezin, beko bear gorriak narama, agur... ezta Lizardi?

Hemen geldituko banintz, bertan geratzeko bulkada izango nukeela sentitu dut. Dei existentziala baino indar gehiago duten bakarrak Atlantikoaren bestaldean bizi diren pertsonatxo batzuk dira.

Eskerrak

Gure lagun indigenek edozein otordu bukatu ondoren eskerrak ematen dituzte. Bai leihotik gazta eta

babak erosita furgoneta barruan egin dugun arrantxo inprobisatuaren ondoren ere.

Ez da argi geratzen elkarri emandako eskerrak diren, ala jan ahal izanagatik Jainkoari edo Bizitzari emandakoak diren. Beharbada, hondoan, ez dira gauza desberdina.

Hamabost urte atzera eraman nau, ukitu egiten baininduen Guatemalako maien ohitura horrek, otordu osteetan "tantish" esateko moduak. Amerika luze eta zabaleko begiratu espiritual nahiz kulturalen artean dagoen konexioaren beste adibide bat.

Inozentzia

Hay un túnel que lleva desde América hasta Europa por debajo del océano.

¿Ah sí?

Noo.

Oruro

Lau graduko eguzki urdinez hartu gaitu Orurok, goizaldean zero azpitik hamahiru gradu eman omen ditu. Goi-lautadako hiriburua. Departamentu osoa (Euskal Herria baino askoz handiagoa lurrez, erdia inguru jen-

dez), gobernatzen duen prefektura indigenen esku dago, eta Leonel gure anfitrioi nagusia da prefektoaren esku eskuina. Apustu handi batean sartuak daude. Bertako herri indigenen lurralde-banaketaren logikatik abiatuta lurralde osoa berriro antolatzea politikoki, ekonomikoki, kulturalki. Tira, “politikoki, ekonomikoki eta kulturalki” gure kontzeptuak dira. Chacanaren dimentsio laukoitzaren arabera, esango lukete beraiek. Politika funts horretatik pentsatzeko determinazioa duen gune bakarretakoa izango da Amerika osoan. Bolivia osorako nahiko luketen irizpidea hemen oinarri errealekin antolatzen ari dira gobernutik. Saiatzen, utz dezagun horretan.

Gaizki sentitzen omen da Leonel boterean. Beti komunitatea eta mugimenduak ‘artikulatzen’ ohitua, boterea maneiatzeak ez omen du gustura sentiarazten, hain zuzen ere horregatik, ‘maneiatzen’ ari dela sentitzen duelako eta ez ‘artikulatzen’. Baina une berezian daude.

Hermanos vascos

Egun hauetan ez dugu beste titulorik entzun. “Los hermanos” gara. Los hermanos vascos. Beren artean erabiltzen duten bokatibo bera. Antolatzen ari diren aldaketa politikorako inspirazio eta lagungarri izan gaitzkeela uste dute. Leonelek ezagutzen du Euskal Herria, eta beren gabeziatarako erreferente ikusten gaitu. Berezi hizkuntza eta nortasunaren garapenean, eta produkzio komunitarioan, kooperatibagintzatik. Ardura handia da, eta guk indar gutxi daukagu⁶. Asma dezagun analisisian behintzat, hasteko. Eta gure hasierako mezuetan erabil dezagun intuizio eragilea.

Gehiago

Analisisan asmatzea eta hasierako mezuetan intuizio eragilea erabiltzea baino gehixeago eskatzen zaigu. Oruroko departamentuko agintari eta eragileekin bilera zabala egin dugu, eta hitzarmen marko moduko bat nahiko lukete. Hizkuntzaren garapenean bate-tik, eta produkzio komunitarioa bultzatzeko koopera-



tiben esperientzian bestetik, proposamen konkretuak eskatzen ditu bilerak. Apur bat inprobisatu dugu, eta eskerrak gure burua Lankin eta Garabiden ametsak maniobratzen hasia zegoen. Bi graduondokoak aipatu ditugu, eta truke-programa espezifikoa, eta egoaldi-formatibo bilateralak. Eta txiletarrekin batera ekonomia solidarioari buruzko graduondokoa hiru herrialdeetan antolatzeko aukera, *ayllu*-aren eta beren produkzio bisioaren gaia ere integratuz.

Aimara zaharra

Tata Florencio nabarmendu zait bilerako guztien artean. Gure ondoan jarri da 74 urteko aitona, pontxo berdea eta kapelu grisa, aurpegi beltzaren zimelean halako duintasun aire bat. Gatza du aitonak. Ez dakit Aimarengan beste gatz bat ez dudan sumatzen. Gure lehengo zaharretako batzuek –aitona Inazio datorkit gogora– eskuak mugitzean eta aurpegiko keinuetan zuten taju hura. Gizon handiaren biloba miresle sentiarazten nauen zerbait.

⁶ Nortasun-garapenearen arloan, Garabide sortuberri delako, eta erantzuteko gaitasuna astiro lortuko duelako. Bestetik, Mundukidek eta Lankik elikatzen duten kooperatibagintzaren arloan truke-sistema indartsuago dago hamar urteko ibilbidearen ondoren, baina gaitasun oso mugatuarekin hala ere. Azken urteotan, gainera, toki batzuk utzi eta gure lana munduko gune batzutan zentratzeaz eztabaidan ari gara.

Bolivian aldaketa prozesu bat omen dago martxan, eta sustatzaile nagusia ez da langile-klasea (lehenago uste izan zuten moduan), herri indigenak ditu motor nagusi. Gobernu eta departamentu-prefektura batzuk lorturik, prozesu horrek errotik ukitzen ditu oligarkiaren interesak, eta lehia lehertzen ari da

Txilerekin muga egiten duen goi-lautadaren ertze-koa da, eta inoiz erabat oinperatua izan ez den komunitate-jarraikortasunaren autokonfiantza dario. Beren lurak ez dira inoiz lurjabe handien menpean egon, konkistaren aurreko Tawantinsuyu zibilizazio zabaletik gaurdaino beren komunitateek atxikitako lurak dira, bazterrean geratu badira ere herrialdeko prozesu ekonomiko-politiko handietatik. Ezagun du.

“Ahora por primera vez tenemos gobierno nuestro. Ahora sí nos sentimos dueños”.

Fundamentuz hitz egin du. Gogoan geratu zait gure mintzaldi eta ondorengo proposamen-gurutzaketaren ondoren gurekiko hartu duen hurbiltasuna. Urkok halako sinpatia keinu edo hitz batzuk egin ditu, bere pasta natural horretan, eta Florenciok hitz goxo batzuk esan dizkio aimaraz. Eta ondoren itzuli egin dio:

“Tú eres mi buen hermano”.

Ukitu egin nau aitona tente honek Urkori halako xamurtasunezko abegia egiteak. Urkok erantzun:

“Me alegro de que haya personas de 74 años como tú apoyando el proyecto de universidad indígena”.

UNIK

Hainbeste gauzaren artean, unibertsitate indigenaren proiektua ez dut aipatu ere egin –gauza dexente dira hautapen presazko honetan sartu ez direnak–.

UNIK unibertsitate indigena da gure bileretako eta proposamenetako gai nagusietakoa. Proiektuarrren jiran gauza interesgarri asko ari dira egiten,

desberdinak, komunitateei lotutakoak, asmoz behintzat akademiakeriatik urrun herri-jakintzari eta beharrei lotuak. Ez dute ordea aitorten ofizialik, eta hainbat proiektu dute buruan. Hor sartzen gara gu.

Kawsaykoen *urrezko ametsa* da unibertsitatea, eta mando zaharra bezala bidea egiten ari dira.

Con esa verddad

Taberna moduko batean llamaren haragi gazitua jatera abiatu, eta tartean dugu Tata Florencio ere. Hizkuntzari buruz guk esandakoek gogoeta piztu diote.

“Cuando hablamos en nuestra lengua, hablamos con ese cariño. Con esa verdad y clareza hablamos”.

Ezin dut transkribatu ‘verddad’ hitza ahoskatzean adierazi duen intentsitatea. Baina iritsi egin zait adierazi nahi izan duena, bere hizkuntzan bere egiarekin egiten duen lotura hori.

Aimara hitzak *haia mara* omen du jatorri, ‘tiempo inmemorial’ esan nahi du. Etorri omen ziren ba espainiarrak eta galdetzen omen zuten ze hizkuntza zen hitz egiten zutena. Haiek aspalditik zetorren hizkuntza zela esanez erantzuten omen zuten, eta izen horrekin geratu. Kechwuerak hizkuntza berriagoa izan behar du, inkek antolatutako zibilizazio loturan (kulturen eta etnien artxipielago luzea artikulatzen zuen sare andinoan) funtzio behikularretan erabilitako hizkuntza.

Zurrumbiloa

Oruro departamentuko eragile pila bati deitu eta aretoa bete dute guri entzuteko. Bi ordu eta erdi inguruko mintzaldia eman dugu, Urkok ekarritako infogramak ere aprobetxatuta gure esperientziaren kontakizun pedagogikoa eginez, eta sintesi eragilea ezpata bihurtuz tarteka.

Leonel ertzetan dauden gizon eta emakume batzuei zorrotik koka orriak eskaintzen.

Lotura, begien konexioa, hazten joan da mintzaldia aurreratu ahala. Askok izan dira galderak, asko iruzkinak, eta bukaeran txanda zabaldu da, entzundakotik sortzen zenaren oihartzuna jasotzeko. Katarsi txiki bat sentitu dut une batez, beren artekoek egindako interbentzio batzuen ondoren askok besoa jaso eta “haiaia” eskerrak ematen hasten zirenean.

Batzuetan, ez dakit nola esan, zurrumbilo bat sortuko balitz moduan, unibertsoaren zentrotxo bat artikulatzen duena minutu batzuetako tartean.

Autoritate komunitarioak

Ez dakit *agintari* itzuli beharko nukeen, beraiek 'botere' kontzeptutik aparte ulertzen dute eta. Oraindik indarrean daude, eta horretaz galdetu diot Leoneli. Hirietan ez, baina komunitateetan ez omen dute inoiz beren lekua galdu, konkistatutako hona autoritate sistema horrek higadura jasan badu ere.

Autoritatea ez da bere hitzetan boterea, txandaka bete beharreko erantzukizun sozial bat baizik. Familia bakoitzeko gizonari, edo ondorengoari, txandan tokatzen zaio ardura hori hartzea. Ardura hori hartzeko baldintza batzuk eskatzen zaizkio. Ekoizpenean emankorra izatea frogatu izana (hori baita herriaren lehen oinarria), jokaera moral egokia, komunitatearen errespetua irabazi izana. Horrek, nolabait, kulturalki bultzatzen ditu jokaera horiek garatzera, eta autoritatearen ardura errotazio moduan bizitzea zerbitzu soziala izateaz gain ikasketa da guztientzat.

Funtzio integralak zituen garai batean, eta gaur egun ere halatsu, Estatuak solapamenduz arlo asko beste logika batetik ukitzen baditu ere. Komunitateko autoritateari omen dagokio, chacanako filosofia integralaren arabera, bizitza ona ziurtatzea, produkzioaren koordinaziotik hasita justiziaraino. Azken honetan, justizia zigortzailearen ordez justizia konpontzaile eta hezitzailea ei dute ipar, jokaera desagokiak komunitatean bertan kudeatuz.

Autoritate hauek errespetatu eta indartzean datza mugimendu indigenaren oinarria eta orain Oruroko Gobernua daudenen indarra. Oruroko Departamentuko agintari moduan, beraiek komunitateetako autoritate izandako zaharren kontseilu bat omen daukate. Tata Florencio omen da bat, eta hura bezalako beste pertsona batzuk.

"Nos orientan con su experiencia. Realmente son sabios".

Leonel pertsona formatua eta botereduna da. Grabatuta geratu zait kontseiluko zaharrei buruz esan duen esaldian jarri duen aurpegia, ez zen diskurtsoa, buruari aldamenara eraginez esan du.

Austeritate hitza entzuten dudanean, arreta pizten dit. Hain dago kontzeptu hori urrun azken hamarkadetan euskaldunongan hedatu den alternatibo itxurako pijismotik, eta gizarteko mezuen zaporetik

Decreto de austeridad administrativa

Austeritate hitza entzuten dudanean, arreta pizten dit. Hain dago kontzeptu hori urrun azken hamarkadetan euskaldunongan hedatu den alternatibo itxurako pijismotik, eta gizarteko mezuen zaporetik.

Beste muturra ere bada hau. Ostaturia Kawsay elkarteak ordaindu zigun Ekuadorren. Ez nuen espero. Bolivian alderantziz, anfitrioi Oruroko Gobernuak genituenez, uste genuen ostaturia ordaindua izango genuela. Keba. Xuhurkeria? Ohartu gara ezetz. Leonel lurralde zabal bateko erabakitzaile nagusiakoa da (agintari gorenaren aholkulari nagusia), baina ez du dirurik gure ostaturako, eta bera autobusean dabil. Gau batean autobusak huts eginda ostaturia hartu behar izan du, eta gurea baino xumeagoko pensio ilun batean geratu da.

Gobernura sartu eta berehala, Evo Moralesek bere soldata erdira jaitsi zuen, eta "Decreto de austeridad administrativa" atera. Gobernuak karguek erabiltzen duten dirua zorrotz murriztu du horrek. Leonel behintzat militante zenean bezala dabil batera eta bestera.

Badu alde txar bat. Dekretu horrek, lanerako jendea eta aholkulariak kontratatzeke aukera ere murriztu omen du. Eta agintari-militante bitxi hauek itota dabilta. Gorputzari gehiegi eskatzen. Apur bat ezagutzen dugu hori zer den. Akats bat.

Azkurea ministerioan

Plangintza eta koordinazioko ministrordeak intelektual troskistaren itxura du, jertse eta betaurreko borobilekin.

Leonelek gugandik bilera honetan nahi zuena sumatuz, Euskal Herriko panorama bat eta beraien prozesuarekiko loturen gainbegiratu bat egin dugu,

Kantzilerrordearekin Evo Morales presidenteak Euskal Herria bisitatzeko duen aurre-asmoaren inguruan bidea egiten jardun dugu. Aurrerago hezkuntza ministrarekin izan dugun bilera ere berezia izan da zentzu batzuetan

eta kontudentea izaten saiatu naiz herri indigenen diskurtsoaren hutsuneak seinatu eta kontzeptu gakoak mahai gainean jartzean.

Begiradetan konexioa dago.

“Todo lo que me dices me pica enormemente”.

Eta galdera zuzena, noiz arte zaudete hemen? Ministerioan bilera izateaz gain, lasai afalduz solas intelektual luzea izan nahiko luke gurekin. Eta gu, ministrordea baino agenda estuagoarekin. Hurrengo bidaiarako utzi dugu.

Hiru helduleku nagusiei errepasso bat egin ondoren (identitatea, enpresa komunitarioak eta gestio publikoa), eta bilerako mamia osatzen zuten elkarlanerako kontuak zehaztuta gero, bera pasa da erasora. Badagoela beste laugarren gai bat, etorkizunean gure arteko elkarrizketa-fluxurako. Gobernu batek eta herri batek lortu behar dutenaren kontzeptualizazio berria egiten ari omen dira Gobernu moduan, Tawantinsuyu-ko kosmobisioan oinarriturik. Garapena ez omen da helburua. Ez omen dute “garapen iraunkorra” ere hartu nahi ipartzat, harago joan nahi omen dute. Herri baten bisioa izan behar duena *sumaj kawsay* omen da: bizitza ona. Ondo bizitzea zer den pentsatzen hasi behar omen dugu, behetik, herri desberdinak, gure arteko konexioak eginez. Indian eta beste hainbat lekutan dituzten kontaktuak aipatu ditu, eta gu hor ikusten gaituela, hori pentsatzen laguntzen, hori pentsatzen.

“Ahora es a mí a quien pica”.

Bai, niri sortu dit azkurea. *Ezkerra* kontzeptuari buruz biok irribarre beretsua egin dugula uste dut. Politika pentsatzen hasteko, lurretik hasita *polisa* oldozten hasteko gogoia dutela dirudi, eta abiapuntu batzuk badituztela.

Ministra

Kantzilerrordearekin Evo Morales presidenteak Euskal Herria bisitatzeko duen aurre-asmoaren inguruan bidea egiten jardun dugu. Aurrerago hezkuntza ministrarekin izan dugun bilera ere berezia izan da zentzu batzuetan, baina laneko koadernoan bi hitz bakarrik geratu dira: “Hezkuntza ministrarekin”, bilerara hasierako titulua, data eta gero orria zuri. Mezu zorrotza eman diogu, eta merezi luke kontatzea, baina egunean pasa diren gauzen artean ez du aipamen berezirik merezi.

Maja, ezkerrekoa. Mariok esan duen moduan, ea aldatzen duten.

Enorme, grande, urgente

Leonel kargatu xamartua dago azken egunotan landu ditugun ideiekin. Aipatu diot, hala ere, beharbada hegemonia kontzeptua bortitzegia izan litekeela koiuntura honetan, hizkuntzak espazio mugatu batzuetan behar duen tokia irudikatzeke, eta adjetibo jarri behar zaiola beti ondoan: *hegemonia irekiak*. Edo bestela sustantiboa baztertu eta taktikoki ‘centralidad’ bezalako zerbait erabiltzea intelijenteagoa izan litekeela. Berak ezetz, hegemonia kontzeptuarekin inpaktua sortzea ona dela. Egin dugun elkarlanean ze puntutan gauden galdetuta, horrela laburtzen dit:

– Se está creando una expectativa enorme con la referencia vasca. Y existe una necesidad grande, y además urgente.

Apuntatu egin ditut koadernoan hiru adjetiboak. Leonel ez da adjetiboak nolnahi erabiltzen dituenetakoa.

Erantzukizuna

Handia da, bai, erantzukizuna. Uste genuena baino inpaktu gaitasun handiagoa daukagu une honetan Amerikako kultura indigenen garapenaren eragile garrantzitsuengan. Alde batetik, ez da seinale ona.

Estrategia-ikuspegi sakona behar dugu, eta hori da aporta dezakeguna, lortzen badugu. Ez da kontua esperientziak transmititzea bakarrik, sintesi bisio-sortzaile bat behar dugu, gure lorpen eta ezintasunen laburbiltze eragile bat. Hori dateke gure balio erantsia.

Eta hori egitea, entzunez, beren larruan sartzen saiatuz, ikasiz. Dialektika horretan, ordea, apalegiak

Tawantinsuyu-ko kosmobisioan oinarririk. Garapena ez omen da helburua. Ez omen dute "garapen iraunkorra" ere hartu nahi ipartzat, harago joan nahi omen dute. Herri baten bisioa izan behar duena *sumaj kamsay* omen da: bizitza ona. Ondo bizitzea zer den pentsatzen hasi behar omen dugu, behetik, herri desberdinak, gure arteko konexioak eginez

izan gabe, errigorez, deserosotasunak asumituz, erakarmenez. Eta denaren hondoa, ondo ala gaitziki, adiskidetasunez, maitasunez. Ez daukagu ezerean kexarik. Lanean nahiz jolasean –edo bien tarteko muga horretan– nahi dugun huraxe egiten jarduteko sentipenean surf egiten ikasi dugu apur bat. Bihotza- ren deiagatik gaude hemen. Zuhur, zoro, hortzak estutzen, gozatzen.

Munai, lehen bultzada, sentimendu eragilea, maitasuna. Hori inguruan dabil gaur, eta dena kutsatzen du.

Adiskidetasunetik zerbait

Bukatu da lan politiko guztia. Afaldu dugu hurbilene-ko taldearekin, "haiaia" esanda hainbat aldiz topa eginenez. Afalondoa, La Pazeko gau hotzean, lau geratu gara, Urko eta biok, Leonel eta Salustiano⁷. Leonel eta Salus, gure bi lagunak, Euskal Herritik ezagutzen ditugunak, pertsona gakoak hemen.

Azken garagardoa hartzera laurok kalean goazela sentipen berezia izan dut. Konspirazio-adiskidetasun

moduko bat. Lan politiko lurpekoan gabiltza, eta konplizitate hariak sendotzen ari dira, baina ederrena da halako adiskidetasun moduko hori. Elkarri adar apur bat jotzeko, edo emakumeez hitz egiteko adina-ko zera hori.

Ez da sentipen berria. Azken hamar urteotan hainbeste izan dira munduko txokoetan egin ditugun adiskideak, hainbeste despedidak, hainbeste begietara irrifarrez begiratuta emandako besarkadak. Hainbeste humanizazio-zurrumbilo txikiren testigu izan gara. Gehitxo eta dena iruditzen zait hamar urtetan. Ez ditugu inoiz idatzira ekarri igurtzitako pertsonak eta bizipenak. Lankiko eta inguruko pertsonen espe-rientziaren dentsitatean geratu dira itsatsirik.

Arrazoi instrumentalari gorazarre

Hegazkineko eskailekera oinez bidali gaituzte. Banoa Boliviatik, eguzkia irteten ari da eta nire begiek goi-lautada agurtu beharko lukete, baina hegazkinaren isatsaren azpitik pasatzea gauza berezia da.

Atzeko motorraren eta isatseko hegal garaien presentzia miresgarria egin zait. Gizaki modernoaren teknika-alardea. Gure buruak behartu ditugu natura eta gizakiaren bihotza bezalako gauza autentikoak ederrestera. Arrazoi instrumentalak⁸ ekoiztutako burnizko eta plastikozko azpi-munduari destainuz begiratzera jarri gara. Guk galtzen dugu. Hegazkin bat, inoiz sumatzera iritsi naitekeena baino elementu gehiagok batera ondo funtzionatzea eskatzen duen arkitektura erraldoi hau, txundigarri da, txundimenaren adar batzuk kamusten ez zaizkidan artean.

Une jakin batean beti motorrak serio haserretzen dira, gauza astunek hegan ezin dutela egin dioen legearen aurrean. Haserre ikusgarriena une bat izaten da, ulertu egin behar da, utzi egin behar zaio motorrari sumina bizitzen, eta orduan zaramatza hegan.

⁷ Salustiano Aima Hezkuntza Ministerioko teknikari bat da, arlo baten arduraduna. Garabideren lehen truke-programarako Leoneli planteatu genion Bolivian kontzientzia maila eta gaitasun biderkatzaile handiko pertsona bat bidaltzeko. Salus etorri zen, eta "ni Salustiano Aima naiz, aimara naiz, eta euskaldunberria naiz" esanez ibili zen euskalgintzako eta erakundeetako bileretan. Ikuspegi indartsua du, eta fundamentua. Evo Moralesen lehengusua ere bada, eta berak berotuta iritsi zaigu presidenteak Euskal Herria bisitatzeko aurre-asmoa. Bisita posible honen inguruan Euskal Herrian izandako gora-beherak ere noizbait kontatzekoak dira.

⁸ Lankiko taldean Joseba Azkarragaren inistentziak aipu klasiko bihurtu du arrazoi instrumentalaren eta arrazoi baloratiboaren arteko oreka galera, modernitate kapitalista ulertzeko gakoetako bat. Horri egiten dio zirri pasarte honek.

Pribilegioa

Lur honetako arbasoek izan ez duten pribilegioa izan dugu hegazkinaren mirariari esker. El Altotik aireratzean altiplanoaren alfombra marroia agertu da zabal, mendikate zuri luze bateraino sartzen. Dagoen aireratzetik ederrenetakoa izango da La Pazekoa.

El Alto hiriak baditu milioitik gora biztanle, eta bere txirotasun uniformearen ia altiplanoarekin koherente ageri da, lurraren kolore bereko milaka etxe apal alfombra bukaezinaren ertzean barreiatuta. Eta goi-lautadaren presentzia ortzimugaren beste ertzera ino. Betikoa, behera joan eta lur zati bat ikutzeko gogoia, esteparen bide ertzeko txabolatxo hartan sus-traituta geratzeko gogoia.

Goi-lautada, mozketatik behera bailara, eta mendikate elurtu luzea.. Bailararen tapiz pinportaduna da La Paz bera, altiplanotik beherako markarreko etxe-inurritegi ondulatua. Pirinio itzel bat dirudi denak, himalaietako mendi garaiak babesle dituela. Nori otu ote zitzaion (otu ote ☺) hemen hiri bat sortzea?

Mendikatean doa hegazkina, Andeak gurutzatzen hasi gara egurats lehorrak ematen duen ikusmen gardenean, hegazkina erabat igo aurretik. Ez goaz mendien gainetik, mendi elurtuak aldamenetik pasatzen dira, guapa! esateko aukera emanez.

Aurrerago, mendi lerroak meandro mugagabe bihurtzen dira, eta Amazonasera zirauntzen. Bista kolpe berean lau sugetzar eta denera ehun bat bihurtune forma guztietakoak. Arroak erro. Hauetako asko, bihurtunearen exajerazioz irla bihurtutako alferrikako ibai-bide borobilduak. Hondartutako arro zabalak, basoarekin kukuka. Beheko detaile bakoitzean, bizitza aukera batentzako deia niretzat, inspirazio mingarri.

Eta oihana behe-lur landuekin batera. Bai, bada-ki, Santa Cruz da, egunotan ahotan ibili dugun lurraldea, baliabide naturalak ustiatzeko oligarkiaren gotorlekua. Justizia soziala garatzeko gobernu berriaren apustua kolokan jartzeko ahalmena dute, eta erabiltzen ari dira. Behean mindu egin ninduen egoerak, oligarkiaren mekanismo faktikoak liburu batean baino argiago erakusten dituen adibide etsigarriak. Hemen goitik anekdota dirudi.

Ohartu naiz nire hegazkinetako gehienak interes-talde horren partaide edo onuradunak direla, negoziotan hiriburutik Santa Cruzera doazenak. Puntutxo bat deseroso sentitu naiz hegazkinkideen artean.

Eskerrak bost fila aurrerago, ni bezala leihotik begira, Noemi doala.

Noemi

La Pazeko aireportuko kolan nire aurrean zegoen, eta berak eskaini dit poltsa zaintzeko laguntza une batean. Iladan eta hegazkineratzeko gelan solasean egon gara, eta aurreragorako planak sortu dira.

Hogeita bi urte ditu, eta lehen aldiz Boliviatik irten da Sevillara doa itzultzeko data zehatzik gabe, gutxienez urtebete, gehienez betirako. Neska txikia da, betarte zapal orientala eta ezpain ederrak. Barruan daukana ahotik naturaltasunez ateratzen zaio. Santa Cruzen hiru orduko eskala daukat nik, berak ere antzekoa, eta elkarrekin hiria ikustera irteteko plana egin dugu.

Aireportutik irten dugu giro tropikalera, haize epela harroxko dabil, eta emozionatu egin da: hara non jartzen den haizeari besoak zabalduta bueltaka errepidearen erdian, autobusera gindoazen bitartean. Autobusean apenas isildu den. Leihotik hiriaren zapora tropikal koloniala dastatzeko beta sakratua ere ez dut hartu, hainbesteko arreta eskatzen du neska beltzaranaren jarioak.

Amak ez zion kechwera erakutsi, eta bai La Pazera bidali ikastera, bere jakin-minerako herriko eskola txiki geratzen zitzaiola susmatuz. Orain Espainiara doa ortzimuga berrien bila. Esperientzia hori ezagutzeko aroa omen datorkio. Aipatu dizkidan bere herriarekiko eta umeekiko miresmenak, gerorako. Espainian ezagutzen duen bakarra bere mutilagun izandako emigrantea da, baina bera berera omen doa, gogoeta oso bat bota dit harremanez eta proiektu pertsonalez.

Badu beste arrazoi bat ere atzerriratzeko. Bere ahizparen alabatxoak berari deitzen dio 'ama', lehen urtetan oso gertuko izan zuelako. Ohartzen da umeak bera maiteago duela ama baino, ama hotzagoa duela, eta berarekin –hau nik ulertzen dudanez– ekintza eta ilusio mundu bat zabaltzen zaiolako. Bere ahizpári espazioa uztea omen da espainiaratzeko arrazoi bat, bertan geratuz gero ezingo baitu haurraren-gandik urrundu, berak ere hainbeste maite eta. “Siento que es mía, porque ella el cariño ha decidido darme-lo a mí”. Ez naiz harritzen, egia esan.

Sumendi bat badu barruan neska honek, txingar bare bat, noiznahi txinparta. Hogeita bi urterekin daukan bizitzaren ikuspegi finduak, dituen intuizioen

ganorak, harritura nauka. Esan egin diot bere hitzak iristen zaizkidala.

“Dios me ha dado dos cosas. Tal vez en potencia, pero están ahí. Una, el sentir las cosas, la capacidad de sentir. Y la segunda, la capacidad de expresarlo”.

Dio jendeak ez dituela gauzak “sennnituz” egiten, hitzari indarra emanez. Eta uneoro sentitzen denari hurbiltzen zaion hitz zehatza bilatzearen inguruan jardun du gero. Une honetan nola sentitzen den galdetu diot. Segundo batzuetan egon da berbaren bila. Lasaitasuna sentitzen duela esan dit. Hamar minutu falta ditu itxarongelatik bere hegazkinera sartzeko, ez du inoiz halako hegaldi bat hartu, emigrante bizitza bat hasiera doa kontinente ezezagun batean. Eta sentitzen duenari jartzen dion hitza da... lasaitasuna. Eta sinistu diot, bere begiek ere hori baitiote.

Arloak eta mugak

Egunotan egindako lanari buruz pentsatzen jartzean, ireki diren lan-ildoetara doa burua. Mugitzen gaituzten amets-motorrei ekarpen txikiak egiteko aukera berriak zabaltzen dira Ekuadorren eta Bolivian.

Nola erantzun, ordea, hainbeste arlori? Bost edo sei fronte baditugu irekita. Lankiko lanbideari lotuenak, euskal herrietako kooperatibagintza, bailara proiektua, munduko hegoaldeko kooperatibekiko interkooperazioa, Paranako lurrik gabekoen proiektu pilotua, eta beste pare bat⁹. Eta Garabideren lana, euskalgintzaren esperientzia munduko herriekin trukatzeko irekitako bidea, une honetan horietatik txikiena da tamainaz. Berez, gainera, ez dagokio gure lan-arloari, baina modu prekario xamarrean ideiak praktikara eramateko laborategi txiki bihurtu da gure taldea. Horietako bakoitzak pertsona multzo bat ehuneko ehunetan egotea eskatzen du. Hori da bidea, jakina, pertsonak inguratzea, eta hirukia osatzea: pertsonak, ideiek eta baliabideek osatzen duten triangulua. Eta gero espiralean joaten dira garatuz. Fronte batzuk genesi garaian daudelarik –perretxikuak, Andoni Muji-

⁹ Lanki Ikertegia hamabi langileko taldea da une honetan, eta apurka osatuz doa. Disziplina desberdinetatik bertako kooperatibetan eta nazioarteko sare batzuetan funtzio batzuk betetzen dituen sormen-gunetxoak. Hiru ikerlerro izan ditu orain arte, horietako bat beste kontinenteetara begira dagoena. Beste lan arlo batzuk Lankitik kanpora geratzen dira.

kak deitzen dien moduan–, ordea, lanpetualdi luze xamar hau tokatu zaigu.

Buruak bai, ematen du denerako. Buruak muga gutxi izaten du. Gehiago dena, fronteen biderkatzean ikasten duenak are gehiago prestatzen du burua are gehiago biderkatzeko. Makina harrigarria izan liteke lepo gaineko portatila. Sentimenak, ordea, gorputzera zubia eginda daukan lurralde zingiratsu horrek, ez du denerako ematen gainezka egin gabe. Bihotzak ez du ertzik, horregatik da ahulena.

Eleberria

Aspaldiko partez eleberri bat hartu nuen esku artean bidaiaren hasieran, hegazkineko ordu aspertuenetan irakurtzeko, zuzentzeko neuzkan azterketen alternatiba moduan.

Harakoan gutxi irakurri banuen, honanzkoan ez dut ukitu ere egin. Hitz hauek idazten eman ditut orduak. Batetik, ez dut izan eleberriari eskaintzeko denborarik. Bestetik, hain justu fikziozko historia batean murgiltzeak, ezabatu egingo zizkidan Bolivia-ko benetako bizipenen kolorearen ñabardura batzuk, eta gero zailagoa litzaidake haiek hitzetan jartzea.

Hegazkinean gertatu zaidana adibide polita da bizitzan fikzio idatziaren gaiarekin gertatzen zaidanarena. Bizitzak berak hainbeste historia eta istorio, hainbeste min, ertz eta ñabardura eskaintzen dituenean, nolaz fikzioan erabili arreta? Eta idazterakoan ere, idaztekotan, fikzioa ote nuke bada lehentasun, bizitakoaren pintzelada oker batzuk edozein fikzio baino ederragoak edo minagoak direnean? Noemi baino pertsonaia aberatsagorik ba ote dago bada fikziozko euskal literatura osoan? Inguruan gertatzen denari bihotzean lekua egiteko orduak gutxiegi direnean, arretan txokoa egiteko bizitza laburregia denean, ura eskuetatik joaten denean inguruko edertasun txikia atzematean... Hegazkinean ez naiz eleberria irakurtzen entretenitu. Ondoko eserleketan doaz ele berri interesgarriagoak. ■

OLARRUN pentsamendu aldizkaria

ARGIArekin batera banatzen da

Zuzendaria: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160

Lasarte-Oria **Posta Elektronikoa:**

larrun@argia.com **Telefonoa:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP SCOOP.